

KONTZEJUPETIK

OÑATIKO UDAL ALDIZKARIA

2019ko iraila / 297. zenbakia

www.oñati.eus  



OTEIZA ETA ARANTZAZU

Oteizaren apostoluek 50 urte bete dituzte. Orioko artistak Arantzazun egin zuen proiektuaren klabeak ulertzeko erakusketak, hitzaldiak eta tailerrak antolatu dituzte

etorkizuneko softwarea

OÑATIN EGINA



MAGNET


magnet.coop
info@magnet.coop

Oteizaren apostoluek

50 URTE

» Irailaren 21ean Oteizaren obra Arantzazuko basilikan instalatu zuteneko 50. urteurrena ospatzeko ekitaldia egingo da Gandiaga Topagunean.

» Orioko artistak Arantzazun egin zuen proiektuaren klabeak ulertzeko erakusketa bana dago Oteiza Museoan eta Gandiaga Topagunean



© Plazaola

Hamalau urtez debekatuta eta bide bazterrean zokoratuta egon ostean, 1969ko ekaina eta urria bitartean jarri zitzuten Jorge Oteizaren apostoluak eta Pietatearen irudia basilikako fatxadan. Orain dela 50 urte. Eta urtemuga borobil hori gogoratzeko, 'Oteiza eta Arantzazuko estatuaria, 1950-1960' programa antolatu dute Oteiza Museo-Fundazioak, Arantzazu Gaur Fundazioak eta Arantzazuko frantziskotarrek.

Oteizaren eskultura lanen garapena eta esanahia, eta Arantzazun burutu zuen esku-hartzearen balio estetiko eta sinbolikoak ulertzen laguntzeko, erakusketa bana antolatu dute Altzuzako Oteiza museoan, eta Arantzazuko Gandiaga Topagunean. Urriaren 27ra arte egongo dira ikusgai.

OSPAKIZUN EKITALDIA

Irailaren 21ean egingo da ospakizun ekitaldi nagusia, Gandiaga Topagunean. Mahai-inguru formatuan, Arantzazuren garrantzia aztertuko da bere testuinguru historikoan. Gainera, Elena Martinen *'Oteiza eta Arantzazuko estatuaria, 1950-1969'* ikerketa lana aurkeztuko da liburu formatuan. Guk egilearekin hitz egin dugu.

(Hurrengo orrira)



mena; elorria iradokitzen duten diamante puntak... Apustua indartsua zen hasieratik.

Garai hartarako Oteiza obra abstraktua egiten hasita zegoen, hutsari edo espazioari nagusitasuna emanez materiaren kaltetan, argi-ilunekin jokatzuz. Indar handiko eskultura.

Eta, nonbait, Pascual de Larak (Arantzazuko absidea margotzeko aukeratutako artista) Oteizaren erakusketa bat ikusi zuen Madrilén, eta berak esan zien arkitektoei aukerakoa izan zitekeela Arantzazuko proiekturako. Hauek kontsulta murriztu bat egin zuten zazpi eskultoreren artean eta, azkenean, Jorge Oteiza hautatu zuten, frantziskotarren onespenarekin.

ELENA MARTIN / Oteiza Museoko kontserbatzailea

"Debekua oso mingarria izan zen, baina, luzera, on egin zion Arantzazuko proiektuari"

Oteizaren eskultura-proiektuaren bilakaera eta Arantzazuko azken emaitzan eragin zuten faktoreak ikertu ditu Martinek bere doktore tesian. Irailaren 21ean aurkeztuko du liburu formatuan.

Altzuzako (Nafarroa) Oteiza Museoko kontserbatzailea eta Gandiaga Topagunean ikusgai dagoen 'Oteiza eta Arantzazuko estatuaria 1950-1969' erakusketaren komisarioa da Elena Martin. Artista oriotarrak Arantzazun egin zuen esku-hartzearen inguruko doktore-tesia idatzi du eta inork baion hobeto ikertu du Jorge Oteizaren obra.

1951n Arantzazuko basilikako enkargua jaso zuenean, Oteiza Amerikatik itzuli berria zen eta artean ez zeukan gerora izan zuen prestigiorik. Zer dela eta

aukeratu zuten Orioko artista Arantzazuko estatuaria egiteko?

Aita Pablo Lete aipatuko nuke hasteko. Bera zen probintziala Arantzazun basilika berria egitea erabaki zutenean. Oso pertsona irekia omen zen. Berritzailea. Estatu mailako lehiaketa bat antolatu zuen, eta bi arkitekto gazte (30-31 urte) aukeratu zituen: Fco. Javier Saenz de Oiza eta Luis Laorga. Hauek ere ez zuten aparteko curriculumik artean, baina frantziskotarrei asko gustatu zitzairen Arantzazuko paisaia malkartsuan txertatzeko arkitektoek egindako proposa-

Oteizak berak erabaki zuen apostoluen frisoa eta Pieta-tearen irudia jartzea, ala enkar-guan zetorren?

Arkitektoen proposamena zen. Dena den, proposamen hartan Ama Birjinaren irudia (jantzia eta koroatua) hormaren erdian azaltzen zen, aingeruz inguratuta (ikusi ondoko orriko irudia), eta lehenengo bozetoak landu orduko, Oteizak goiko aldean kokatu zuen Ama Birjina, espiritualtasunarekiko topaketa sinbolizatuz.

Oteizak lankidetzan estuan jardun zuen arkitektoekin, eskultura arlori mugatu barik. Hala, adibidez, berak proposatu zien fatxadaren goialdean aurreikusita zeuden arkuak (Ikusi irudia) kentzea.

Nola interpretatu behar dugu hamalau apostoluen frisoa?

Oteizak hiru kontzeptu lotu nahi izan zituen bere estatuarian: sinbolikoa, erlijiosoa eta estetikoa. Bere eskultura kontzeptuaren helburua zen masa eta espresibitate ahultzea, hutsuneen mesedetan. Espazioaren hustuketa. Bada, sinbolikoki, apostoluak zabalik daude; besteengan jarria dute bihotza. 'Jainkoz bete behar

duenak, bere buruaz hustu behar du' esan zuen berak, San Paulori erreferentzia eginez.

Apostolu multzoan irudiak ez dira banaka agiri; irudi bakoitza hurrengoan amaitzen da, frisoaren osotasuna garatuz. Irudiak espazioan segida izatea interesatzen zitzaion Oteizari, erritmo bat sortzea, mugimendu bat, materiaren eta espazioaren, hutsaren eta bolumenaren arteko txandakatze bat.

Artistak kendu egin zuen apostolu bakoitzari zegokion identifikazio ikonografikoa. Denak berdinak egin zituen, komunitate ideia emanez. Gauza beraren bila doan pertsona multzo bat da frisoa. Horrela, erlijio sentimenduari eta salbazio sentimenduari herri oso baten ideal komuna gehitzen dio.


Bestalde, apostoluen aurpegiaren definizioan euskal herria irudikatu nahia ageri da, eta, era berean, herritarrak identifikatuta sentitzekoa ere bai.

Arkitektoen proposamenean 12 apostolu azaltzen dira, baina Oteizak 14 jarri zituen. Zergatik?

'Sartzen zaizkidanak jarri ditut' erantzuten zuen berak. Esan dugun moduan, eskulturalki, sekuentziaren ideia interesatzen zitzaion Oteizari; irudi baten eta hurrengoaren artean segida erritmikoa izatea bilatzen zuen. Beraz, dorreen arteko espazioa estaltzeko, irudien eskala egokia aztertu eta, bere kontzeptuari jarraituz, hamalau apostolu irudikatu behar izan zituen.

1955ean eliz agintariak geldiarazi egin zituzten Oteizaren eta gainerako artisten lanak. Zein izan zen arrazoia?

Hasteko, gogoratu behar da 1952an aita Lete hil zela, hegazkin istripuz, Arantzazuko proiektu-



Goiko irudian F.J. Sáenz de Oiza eta Luis Laorga arkitektoek aurkeztu zuten proiektua ikus daiteke. Ama Birjiñaren irudia fatxadaren erdian agiri da, aingeruz inguratuta. Eskumakoan, Oteizak frontiserako aurkeztu zuen hasierako proiektua ikusten da.



turako dirulaguntza bila Kubara zihoala. Beraz, neurri batean proiektua umezurtz geratu zen.

Debekuaren zergatiak artistikoak eta erlijiosoak dira. 'Korronte modernisten eraginez galduta ibiltzea, eta Elizak arte sakratuaren arloan ezarriak zioten arauetako batzuk kontuan ez hartzea' argudiatu zuen, besteak beste, Erromako Arte Sakratuaren Batzorde Pontifizioak. Monumentalismoa bilatzen zuen Elizak garai hartako eraikinetan.

Baina Euskal Herriko orduko testuinguru politiko, sozial eta kulturala ere ezin dira ahaztu. Arantzazuko proiektuak dimen-

ARANTZAZUKO PROIEKTUAREN KRONOLOGIA

© 1950

F. J. Sáenz de Oiza eta Luis Laorga arkitektoen proiektua aukeratzen dute basilika berria eraikitzeko.

© 1951

Araozko Uriarte Anaiei esleitzen zaie obra eta Oteiza hautatzen dute eskultura lanak egiteko.

© 1952

Aita Pablo Lete probintziala hiltzen da hegazkin istripuz.

© 1955

Elizak geldiarazi egiten ditu Oteiza, Basterretxea eta Pascual de Lararen lanak. Basilika berria 1955eko abuztuaren 30ean inauguratzen da dekorazio barik.

© 1966

Eliz agintariak behin betiko baimena ematen dute, Oteizak bere estatuari jarri ahal izan dezan basilikako fatxadaren.

© 1968-1969

1968ko azaroan itzuli zen artista Arantzazura. 1969ko ekainean ipini zituzten 14 apostoluen irudiak eta urrian Pietatearena.

tsio kolektiboa zeukan eta horrek balio sinbolikoa eta soziala ematen zion. Abertzaletasunaren ikur eta erresistentzia gune bezala ere aurkeztu zen basilika hainbat sektoretan.

Hamalau urtez luzatu zen debekua. Zer gertatu zen Elizak iritzi aldatzeko?

Oso garrantzitsua izan zen, nire ustez, 1961. urtea. Pascual de Lara, absidea pintatu behar zuen artista, 1958an hil zen, buruko odol-isuri baten ondorioz, eta 1961ean Lucio Muñoz esleitu zioten proiektua. Une horretan Jose Artetxe idazleak 'Apostoles en la cuneta' artikulua idatzi zuen, eta beste artista eta intelektual asko ere Oteizaren proiektuaren alde jarri ziren, eztabaida publikoa abiaraziz.

1964an batzorde bat bildu zen, Donostiako apezpikua buru zela, eta baimena ematea erabaki

» Arantzazun esku-hartu zuten artisten konpromiso maila handia azpimarratuko nuke nik. Arantzazuko basilika artea eta arkitektura integratzeko proiektu konplexu bat da. Osoko obra bat. Erabatekoa. / Elena Martín

zuten, baina, ustekabeen, handik egun gutxira, atzera egin zuen gotzainak. Bigarren galarazpena. Hala jarraitu zuen, harik eta 1965eko Vatikanoko II. Kontzilioak arte modernoa onartu behar zuela erabaki zuen arte, eta 1966an iritsi zen behin betiko baimena.

Hala ere, bi urte pasa behar izan ziren Oteiza Arantzazura bueltatu zen arte. Zergatik?

Oso minduta zegoelako. Eta, gainera, kontuan hartu behar da Oteizak eskultura utzia zuela jada; 1957an lehen saria lortu zuten Sao Pauloko (Brasil) Bienalean, eta 1959an amaitutzat eman zuen bere eskultura ikerketa. Hortik aurrera beste hizkuntza artistikotan zentratu zen.

Nik uste dut hiru pertsona (Jose Artetxe, Miguel Pelay Orozco eta aita Goitia frantziskotarra) oso inportanteak izan zirela Oteiza Arantzazura itzul dadin.

Frisoaren ideia bere horretan berreskuratu zuten, baina fatxadarako pentsatuak zituen erliebeak kendu egin zituen.

Bai, noski, Oteiza bera ere beste pertsona bat zelako; 1950eko Oteiza eta 1969koa ez da bera. Bere lehenengo proposamenen erliebe negatibo sorta bat jarri zuen Oteizak, Arantzazuko Ama Birjinaren agerpena eta Euskal Herriko elementu tradizional ezberdinak (dantzariak, bertsolariak...) irudikatuz. Baina 1968an Arantzazura bueltatzen denean horiek guztiak kentzea erabakitzen du, espazio huts handia sortuz Pietatearen eta frisoaren artean. '...Nork bere pentsamendu eta otoitzekin betetzen duen lekua da, gizakiaren etxea da... Amaren bakardadea gori-gorian ageri da' esaten zuen berak.

Ez hori bakarrik. Dorreetan zeuden leiho handiak ere itxi egin zituzten, basilikaren multzo espaziala sinplifikatuz.


Horregatik esaten dut nik, perspektibarekin ikusita, debe-kuak on egin ziola Arantzazuko

ERAKUSKETAK, BISITA GIDATUAK eta TAILERRAK

Arantzazuko Gandiaga Topagunean eta Altzuzako (Nafarroa) Oteiza Museoan erakusketa bana dago ikusgai urriaren 27ra arte. Jorge Oteizaren obraren eta Arantzazun burutu zuen esku-hartzearen klabeak ulertzeko aukera eskaintzen dute. Besteak beste, Oteizak, Basterretxeak eta Larak Erromara bidali zituzten txostenak ikus daitezke, eta Oteizak berak grabatutako dokumental bat ere bai.

BISITA GIDATUAK. Elena Martín erakusketako komisarioak gidatutako bisita egingo da urriaren 5ean (Oteiza Museoan, 12:00) eta urriaren 19an (Gandiaga Topagunean, 12:00). Bestalde, urriaren 7an hitzaldia emango du Elena Martinek Donostiako Tabakaleran, 19:00 ('Oteiza en Arantzazu. Del debilitamiento de la expresión al espacio receptivo').

LANTEGI PEDAGOGIKOA. 'Harrizko gorputza, buztinezko arima'. Maushaus elkartearen eskutik, 6-12 urte arteko haurrei zuzendutako tailerrak egingo dira Gandiaga Topagunean irailaren 28an eta urriaren 19an.



1955eko abuztuaren 30ean inauguratu zen basilika, dekorazio barik, apostoluak bide bazterrean zeuden bitartean. (Argazkiak: Arantzazuko Artxiboa eta Ricardo Ugarte)

proiektuari. Galarazpenak oso mingarriak izan ziren artistentzat eta frantziskotarrentzat, baina, bestalde, proiektua heltzeko edo ontzeko denbora bat ireki zen, eta horrek lagundu zuen basilikaren isiltzea are erradikalago

bilakatzen, eta hori da, nire ustez proiektuaren gakoa; hutsunea, irudirik gabeko horma. Hutsune hori, non bakoitzak bere burua aurkitu behar duen, funtsezkoa da Oteizarentzat. Sakratua.

Zuk, pertsonalki, zer nabarmenduko zenuke Arantzazuko proiektu artistikotik?

Fatxada edota absidea bera zoragarriak dira, jakina, baina ni neu artistaren konpromisoarekin geldituko nintzateke. Arantzazuko basilika, artea eta arkitektura integratzeko proiektu konplexu bat da. Osoko obra bat. Erabatekoa. Arkitekto, pintore eta eskultore talde baten interakzioaren emaitza. Horrek dimentsio kolektiboa ematen dio proiektuari, bere esangura eta gizartean proiektatzeko gaitasuna areagotuz.

Eta beste kontzeptu bat ere nabarmenduko nuke: artearen esperimentazioarena. Arantzazun esku-hartu zuten artista guztiak garbi zuten artea esperimentatu egiten dela, eta eginez ikasten dela; alegia, bidean dagoela benetako ikasketa, azken emaitzan baino gehiago. Azken emaitzaren bila joan izan balira, ez genukeen izango gaur egun dugun basilika zoragarri hau. Proiektua eraldatuz joan zen, eta artistek jakin zuten prozesu horretara moldatzen. Prozesua bera da benetako obra, emaitza baino gehiago. ■

Arantzazuko beste artistak



Manuel
Moreno
Arantzazuko
apostoluen
frisoaren
bozetoa
lantzen

MANUEL MORENO GUTIERREZ

Gutxitan aipatzen badira ere, Oteizak taillagin edo zizelkatzaile eta hargin talde trebe baten laguntza izan zuen Markinatik ekarritako harritzarrak apostolu bihurtzeko lanean.

Manuel Moreno Gutiérrez (La Puebla de Cazalla, 1922 - Oñati, 1990) izan zen horietako bat. Sevillarra sortzez, Morenok Madrilera jo zuen gaztetan, aurrez bere herriko beste artista batzuek egin bezala: Jose María Moreno Galván arte kritikaria; honen anaia Francisco, pintore eta idazlea; Pepe Menese flamenko-kantaria...

Francisco herrikidearen bitartez Eduardo Carretero eskultorearekin harremanetan jartzea lortu zuen Morenok, eta hortxe hasi zen bere zizelkari ibilbidea. Eta orduantxe ezagutu zuen Oteiza bere ere. Garai hartan (1955) Madrilén zeukan bere estudio-tailerra Oteizak, eta Manuel Moreno hartu zuen laguntzaile bi urtez.

1968an, Oteiza Arantzazura bueltatu zenean bere estatuaría amaitzera, Moreno ekarri zuen laguntzaile bezala. Oteizak 1:3 eskalan egindako bozetoetatik abiatuta, harri-bloke handietan puntuak ateratzea zen Morenoren ardura, gero, harginen laguntzarekin, apostoluen eta ama birjinaren irudiak egiteko.

Arantzazuko lanak amaitu ondoren, Moreno Oñatin geratu zen bizitzeko familiarekin. Kanposantuko hargin tailerrean egin zuen lan, baina, tarteka, bere eskultura lanak egiten jarraitu zuen. Ezagunenena, beharbada, Durangoko Mikeldi kalean dagoen Mikeldiko Idoloa izenez ezaguna den eskulturaren kopia. Nestor Basterretxea eta Jesús Valverde eskultoreekin ere egin zuen lan, eta hainbat eliza eta eraikin publikotako erliebeak ere egin zituen.



Erdiko
argazkian,
Manuel Moreno
eta Modesto
Proupin hargina,
Arantzazun
lanean.
Ezkerrean,
Manuel
Morenoren
seme-alabetako
batzuk,
aitak egindako
Pietatearen
erreplikekin.



TOMAS URIARTE VILLAR

'Arantzazuko hargin maisua' esaten zion Oteizak, Pelay Orozkoren 'Oteiza' liburuan irakur daitekeenez.

Araotzeko Errekatxikiñeko Tomas Uriarte (1895-1966) hargina zen lanbidez, eta Arantzazuko basilika berria eraikitzeko lanetan jardun zuen, bi alditan. Aurrena, 1920an, Pablo Ruiz de Gamizek finantzatutako proiektuan, urte batzuk



geroago porrot egin zuena, Gamizen ondasunekin batera. Eta 1951n berriro itzuli zen Arantzazura, Saenz de Oiza eta Laorgaren basilika eraikitzera. Oteizaren apostoluak lantzen ere jardun zuen, harriak arbastatzen edo gastatzen, Elizaren debekua iritsi aurretik.

Bigarren aldi honetan, Pedro, semea, eta Amiamena baserriko Nikolas Ibabe gaztea ere eraman zituen Arantzazuko lanetara. Hauek dorreetako harritzko diamante puntak lantzen jardun zuten. Dorre handiaren azken harriaren azpian utzi omen zuten idatzita, lanean ibilitako harginen izenak, xanpain botila baten barruan. Arantzazuko lanak amaitu ostean, Oñatiko kaleetarako harria ateratzen jardun zuten Araotzeko harrobian.

JAVIER BIKUNA URZELAI

Albarritzako Javier Bikuña (Oñati, 1935) ia bi urtez jardun zuen Arantzazuko basilika berria eraikitzeko lanetan, igeltsero, 1954-1955 artean. Dorre handiak lau harri-ilara besterik ez zituen bera hasi zenean.

Gogoan du Oteiza hantxe egoten zela, eliza barruan, bere lehenengo bozetoak lantzen.

Oteizarekin harreman estuagoa izan zuen 1968tik aurrera, Orioko artista Arantzazuko lana amaitzera itzuli zenean. Ordurako Javierrek kanposantuko hargin tailerrean ziharduen, eta bertako bi langile (Modesto eta Manuel galiziarak) eramaten zituen egunero Arantzazura, Manuel Morenorekin batera. Buztina eta igeltsua ere eramaten zizkion Oteizari, bere maketak lantzeko. Apostoluak bukatu zituztenean, harria falta zen Pietatearen irudia egiteko, eta Javier bera joan zen Markinako harrobira, berak bazekielako nondik aterata zegoen apostoluendako harria.

Basilikako horman Pietatearen irudia jarri ahal izateko zuloak eta ainguraketak egiten ere ibili zen Javier, eta dorreetan kanpaiak jartzeko asmoz hasiera zabalik utzi ziren leiho handiak harri-puntez ixten ere bai.

Javier maisua izan da harria lantzen eta hainbat lan egin ditu Oñatiko parrokian eta beste hainbat eraikin eta elizatan.



'OROIMENEAN'

musika eta elkartasuna bat eginik

Alzheimer gaitza bistaratu eta gizartea kontzientziatzea helburu duen 'Oroimenean' **ikus-entzunezkoa** eskainiko du Oñatiko **HOTS** abesbatzak irailaren 21ean

Herriko jaietan murgildu aurretik ikuskizun artistiko-musikal eder batez gozatzeko aukera izango dugu. Oñatiko Hots Abesbatzak *Oroimenean* izeneko ikuskizuna eskainiko du irailaren 21ean. Musika, dantza, narrazioa eta interpretazioa uztartuko dituen ikus-entzunezkoa da. Gainera, elkartasun ekimen bat dauka bere baitan, eta, beraz, gure agendan gorritzaz azpimarratzeko moduko hitzordua da, zalan-tza barik.

Izan ere, *Oroimenean* proiektuak alzheimerren inguruko kontzientziatzea sendotzea du helburu; gaixotasuna ikustarazi, eta berau sufritzen duten pertsonen eta senideen laguntzea; gaitz honen inguruan oraindik dagoen estigmaterekin amaitu eta duintasunez eta ahalik eta bizi kalitate onenarekin aurre egin ahal izateko lana egitea.

Irailaren 21a alzheimerren eta endekapenezko gaixotasunen mundu mailako eguna da, eta Hots Abesbatzak bere aletxo ipini nahi du, berak ondoen dakien moduan, abestuz. Hots taldeko kideak sinetsita

daude musika eta gainerako arte adierazpideak bitarteko egokiak direla gizartean eragiteko, eta horretan saiatu nahi dute.

KANTUA, MUSIKA, DANTZA ETA NARRAZIOA

Helburu horrekin sortu dute *Oroimenean* ikuskizuna. "Produktzio potentia da, exigentea; eta aldi berean oso intimoa, barnekoa, gaiak eskatzen duen moduan" adierazi digute taldeko kideek. Hots Abesbatza uneoro egongo da agertokian, pianoa eta orkestra txiki bat lagun duela, eta dantzari batek jarriko dio mugimendua eta espresioa musikari.

Narratzaileak ere presentzia nabarmena izango du, bere hitzekin bizia emango diolako alzheimer gaitzak jota dagoen pertsona bati. "Bere bizitzako hainbat pasarte kontatu ahala, bere oroimenean desagertzearen dauden oroitza-penak idatziz joango da, momentua iritsi-takoan, eta bere kabuz oroitza-penak oroimenean aurkitzen ez dituela ikusita, liburu horrekin topo egin arte", azaldu digute



**Irailaren 21ean
izango da
emanaldia,
Zubikoa
pilotalekuan,
22:00etan**

**Salmentatik
lortutako
diruaren
zati bat
alzheimerra
eta
endekapenezko
gaitzen
ikerketara
bideratuko da**

Hots-eko kideek

Musika izango da ardatza ikuskizunean. Hots abesbatzak 14 kanta abestuko ditu, denak ere esanahi berezia dutenak, eta narratzailearen haria osatuko dutenak. "Pasarte bakoitzak bere kanta izango du, eta istorioa ulertzen eta bertan murgiltzen lagunduko digu" azaldu digute. Azpimarratzekoa da, gainera, abestietako bi, Andoni Salamero idazlearen hitzekin Junkal Guerrero konposatzaile donostiarrek ikuskizun honetarako propio sortuak direla.

Dekoratuak eta argiztapenak ere protagonismo berezia izango dute ikuskizunean. Tamaina ezberdineko argazki marko bat agertuko da eskenatokiko kokaleku ezberdinetan, *leitmotiv* gisara, irudi eta argazkien bidez oroitza-penak islatzeko.

BESTELAKO EKITALDIAK

Irailaren 21eko ikuskizunaz gain, aste horretan bertan hitzaldi bat antolatuko du Hots Abesbatzak, kontzertua girotu eta, batez ere, AFAGI erakundeak egiten duen lana ezagutzera emateko asmoz. Alzheimer gaitza duten pertsonen senide eta lagunak biltzen duen Gipuzkoa mailako elkarte da AFAGI.

Bestalde, *Oroimenean* ikuskizunean argazki markoak izango duen protagonismoa kontuan hartuz, irailean zehar argazki



Amaia Igartua
ARKITEKTURA ESTUDIOA

-Zaharberritzeak -Ikuskaritza Teknikoak (ITE) -Ziurtagiri energetikoak (CEE)
-Igogailuen eta 0 kotara proiektuak -Eraikinen mantentze planak (PUM)
-Jarduera lizentziak -Fatxaden eraberritze energetikoa -Diru laguntzen gestioa
tel: 677 31 20 57 • email: amaiigartua@gmail.com • Oñati





► HOTS ABESBATZA

2016ko irailean sortu zen Hots Abesbatza, Ganbara Faktoriaren baitan eta Aitor Biain Bidarteren zuzendaritzapean. Musika korala eraldatu, emakumearen irudia bistaratu, eta emakume abesbatzen esparruan zegoen hutsunea betetzeko asmoz sortu zen. Oñatiko eta inguruko herrietako nahiz probintzietako 40 emakumek eta gizonezko batek osatzen dute taldea. A *capella* edo pianoz lagunduta, garai ezberdinetako obrak abesten dituzte, klasikoetatik garaikideetara, hemengo nahiz kanpoko autoreenak. Euskal folkloreak eta euskal musikagileek pisu handia dute beraien erreperatorioan, batez ere, emakume konposatzaileek.

marko bana ipiniko dute herriko denda ezberdinetan, mezu jakin batekin, herritarrek sentsibilizatzeko helburuarekin.

DISKOA

Egindako lanaren emaitza saio bakar batera mugatu barik, disko batean jasotzeko asmoa dute Hots Abesbatzakoek, proiektuari ginga jarritz. Azaro eta abendu aldera grabatzea da asmoa, urte berriarekin batera argitaratzeko. Disko solidarioa izango da, eta salmentatik lortutako diru kopuru

Kantua, musika, narrazioa, dantza eta interpretazioa uztartuko ditu ikuskizunak

bat alzheimerra eta endekapenezko gaitzen ikerketara bideratuko dute.

Hots Abesbatzak eskerrak eman nahi dizkie proiektu hau aurrera atera ahal izateko diru-laguntza eman duten erakunde eta enpresei: Oñatiko Udala, Giupuzkoako Foru Aldundia, Kutxa Fundazioa, DanobatGroup, Lana S. Coop eta Ezpeleta. Laguntza eman nahi lukeen beste enpresarik balego, Hots Abesbatzaren atea beti zabalik egongo dira elkarlanerako■

IKERKETARAKO DIRUA

Oroimenean ikuskizunerako sarrerak 12 euro balio du (8 euro 12 urtetik beherakoentzat), eta salmentarekin lortutako diru kopuru bat alzheimerren eta endekapenezko gaitzen ikerketara bideratuko da.

Sarrerak ohiko salmenta puntuetan eskuratu ahal izango dira: Txokolateixan, plazako txarteldegia digitaletan eta internet bidez. Egunean bertan ere egongo dira salgai Zubikoa pilotalekuko sarreran.




NAGORE GOÑI
argazkilaritza-fotografia

**INOIZ AHAZTUKO EZ
DITUZUN MOMENTUAK**

Lope Aguirre kalea, 8, behea (Kultur Etxaren ondoan)
Tel: 639238880
e-mail: nagoregoni@goi@gmail.com
www.nagoregoni.com

IÑAKI OLALDE ALTZELAI | Udaleko kultura batzordeburua

«Jaiak diseinatzeko talde antolatzaile anitza eratzea gustatuko litzaidake»



Iñaki Olalde, jai egitarauaren azalerako lehiaketa irabazi duen Santi Ugarterekin

Udalbatza berriko kultura batzordeko burua da Iñaki Olalde. Ekainaren 15ean hartu zuen kargua eta, ia beste ezertarako asti barik, San Migel eta Errosarixo jaietako egitaraua prestatzen jardun du buru-belarri. Laster hasiko diren herriko jaiak eta kultura arloan hurrengo lau urteetara begira dituen egitasmoen hitz egin dugu.

Kultura batzordeko buru izanik, bereziak izango al dira aurtengo jaiak?

Normalean barrutik bizi izaten ditut jaiak, eragile moduan, bertso saioak antolatuz, edo Herri Eguneko gazta lehiaketan epaile lanak eginez, besteak beste. Aurtengo, lan horiek alde batera utzi gabe, erantzukizun apur bat gehiago izango dut, bai. Adi egon beharko dugu, ea programatutako guztia ondo irtetzen den, ea jendearen gustukoa den... Hala izatea nahi genuke.

Hurrengo astean aurkeztuko duzue ofizialki jai egitaraua, baina zer aurreratu dezakezu? Izango al da berritasunik?

Aurtengo irailaren 27an hasiko direla jaiak. Kontuan hartuz San Migel bezpera larunbata dela, bezperatik hasi nahi dugu herria girotzen. Hala, ostiral arratsaldean haur eta gaztetxoentzako ekitaldiak egongo dira, eta gaueko rock talde ezagun baten kontzertua programatu dugu.

Bestalde, azpimarratuko nuke Iker Martinezek bere disko berria aurkeztuko duela, eta erraldoien konpartsen kalejira berreskuratuko dugula herriko gazte talde baten ekimenari esker.

Aipamen berezia merezi du, baita ere, jaien atarikoan, irailaren 21ean, Hots Abesbatzak Zubikoa pilotalekuan eskainiko duen 'Oroimenean' ikuskizun solidarioak.

Zu zeu, jai zalea al zaitugu?

Bai. Gustatzen zait eguneko nahiz gaueko jai giroaz gozatea, ahal den neurrian.

Auzoetako jaiak ere azpimarratu nahi nituzke. Izugarriko meritua dute antolatzailerik. Denbora, esfortzu eta diru asko egoten da tartean, eta uste dut balioan jarri behar ditugula eta dagokien garrantzia eman.

Beste herri batzuetako jaietara joan zalea zara?

Ez naiz jaietara irtetekoa. Ekitaldi puntualak ikustera bai. Askok gustatzen zait, adibidez, Ortigueiran (Galizia) uztailean ospatzen den zeltiar musikaren jaialdia. Aurtengo ere bertan izan naiz.

Herriko jaietara bueltatuz, gustuko al dituzu San Migel



Mikel Egaña Urrutia
Aseguruak

Eskatu aurrekontua konprometzu gabe:

- ✓ Heriotza
- ✓ Autoak
- ✓ Bizitza
- ✓ Istripuak
- ✓ Ontziak
- ✓ Osasuna
- ✓ Etxebizitza
- ✓ Aurrezkia
- ✓ Laborantza

Helbidea: Motxon 5, behea
638 16 79 84

mikel.egana@agentes.catalanaoccidente.com

Almaraz
Inmobiliari gestioa

Tel.: 679411444
www.almaraz.info

Carmelo Pérez de Almaraz

"Gure bezeroen eskari eta beharrei erantzun nahian, etxebizitza, lokal, garaje, baserri, lursail edo pabilioi bat saldu edo alokatu nahi baduzu, dei diezaguzu".

eta Errosarixo jaiak gaur egun ospatzen diren eran? Gustatzen zaizkit, jendeak parte hartzen duen heinean, eta kalean bizittasuna baldin badago.

Egia esan, ez da erraza Oñatiko jai egitarauan gauza berriak programatzea. Aspalditik datozen hainbat ohitura eta ekitaldi finko daude egitarauan, eta zaila izaten da gauza berrientzako tokia aurkitzea.

Aurten ez duzu denborarik izan, baina hurrengo urteei begira aldaketarik egiteko edo berritasunik sartzeko asmorik?

Jai-batzorde edo lantalde bat osatzea gustatuko litzaidake, genero, adin eta sektore ezberdinetako herritarrez osatua; norberaren interesetik baina, herrira begirako interesetik berba egingo duten pertsonen osatua. Eta denon artean buelta bat eman jai ereduari, eta egoki ikusten diren aldaketak proposatu. Ni prest nago gauza berriak probatzeko, baina horrek alde aurreko talde-lana eskatzen du, jendearekin kontrastatzea, sozializazio lana...

Bestalde, borradore bat prestatu nahi dut, ekintzak antolatzen aritzen den jendearen errelebo naturalak bermatzeko, inor erretzera iritsi gabe. Aurten, adibidez, talde berri bati esker aterako dira tanborradak, eta uste dut parte hartzaileen inplikazioa eskatuko duen sistema bat asmatu behar dugula, erreleboa bermatzeko.

JAI BATZORDEA

«Jai batzorde sendo bat sortzea gustatuko litzaidake, norbere interesetik baina, herrira begirako ikuspegitik berba egingo duten herritarrez osatuta, eta denon artean buelta bat eman jai egitarauari»

APP BERRIA

«Aplikazio bat sortu nahi dugu herrian antolatzen diren kultur ekitaldiak hobeto koordinatu ahal izateko. Herritarrek kontsultatu ahal izan dezaten zer dagoen programatuta uneoro»

Jaiak alde batera utzita, zein dira agintaldi berrirako egitasmo nagusiak?

Euskal kultura sustatzea eta herriko sortzaileei laguntzea, bereziki emakumeen lana ikustaraziz.

Egitasmo zehatzei dagokienez, App erako aplikazio bat sortu nahi dugu, herriko kultur agenda hobeto koordinatu ahal izateko. Zorionez, Oñati herri oso bizia da eta ekitaldi asko antolatzen dira urtean zehar. Askotan, baina, ekitaldi asko egun eta ordu berean antolatzen dira, eta hori ekidin asmoz aplikazio bat jarri nahi dugu martxan, herritarrek

konsultatu ahal izan dezan zer dagoen uneoro.

Horrez gain, ikastetxeekin elkarlanean jarraituko dugu programa ezberdinen bidez kulturaren transmisio egokia bermatzeko. Eta, bestalde, kulturarako sarbide unibertsala bermatzeko neurriak hartuko ditugu; jende guztiaren egoera ez da berdina (langabeak, ikasleak, erretirodunak...) eta gure helburua da herritar guztiek parte hartu ahal izatea kultur ekintzetan, eta gozatu ahal izatea kulturaz.

Aurreko agintaldian Eltzia izan zen udalaren apustu nagusia kultura arloan. Amaituta dago proiektua?

Bai. Uztailen amaite ziren topalekua atontzeko lanak eta, horrenbestez, amaitutzat eman daitezke inbertsioak. Uste dut bete-betean asmatu dela Eltziaekin. Herriko talde asko daude bertan lanean, jendea gustura dago, tabernak ere bizitasuna eman dio guneari eta auzoari... Aipatu nahi nuke, gainera, Lagun Leku elkarteak egiten duten ekarpen bikaina.

Uste dut itxura oso ona duela Eltzia, eta bide onean goazela. Orain falta zaiguna da bertan diharduten eragile ezberdinen arteko sinergiak eta elkarlana bultzatzea eta proiektu berriak irteera; bakoitzak bere ziliborrari begiratu barik, elkarlana sustatzea, eta txinpartak ateratzea eraikin horretan dagoen indarrari.

Azpiegituri dagokienez,

Musika Eskolaren beharrei erantzutea da agintaldiko erronka nagusia?

Bai, baina agintaldiko lehen bi urteetan behintzat ezingo dugu inbertsio handirik egin, kiroldegiko obra dagoelako. Beraz, ondo aztertu beharko da zer daukagun, ze behar dauden, eta saiatu ahalik eta irtenbide egokiena ematen.

Sormen aldetik, nola ikusten duzu herriko dinamika?

Oso bizirik. Zorionez, sortzaile asko eta askotarikoak daude herrian, eta gure egitekoa da horiei babesa ematea, dirulaguntzen bidez, eta sormena sustatzeko baldintza egokiak sortuz. Berezik emakume sortzaileen lana ikusarazteko neurriak hartu nahi ditugu.

Herritar eta kultura arloko eragileentzako mezurik?

Lehenengo eta behin eskerak ematea, modu batera edo bestera herriko kultur dinamiketan parte hartzen duten herritar guztiei. Beraien denbora libreko ordu asko eskainiz, herria kulturalki aberatsagoa izatea ahalbidetzen dute.

Gainerakoan, animatu egin nahi ditut herritarrek kultur ekimen ezberdinetan parte hartzera. Eta esan gure ateak zabalik daudela guztientzat. Kultur etxean dago udaleko kultura teknikaria eta bertara joan daiteke edozein proposamen egitera. Gu saiaturako gara erantzuten ahal den neurrian. Orain arte bezala, herritik herriarentzako, auzolanean sortutako kultura eredu bultzatuko dugu. ■

Urte askotan zuekin

Portu Kale 5 • Tel: 943 78 12 65 • www.mapfre.es



Matrikula aldia zabalik

UDAL EUSKALTEGIAN

Bedita Larrakoetxea Udal Euskaltegian prest daude ikasturte berriari ekiteko. Aurten ere eskaintza zabala prestatu dute: Euskalduntze eta Alfabetatze mailak, titulu ofizialak (HABEren A1, A2, B1, B2, C1 eta C2. mailak) lortzeko ikastaroak, aurrez aurrekoak, etorkinei zuzendutako ikastaroak, Oñatiko euskara lantzekoak... Maila eta behar guztietara egokitutako eskaintza zabala. Izena ematen duten ikasleen artean matrikula baten zozketa egingo da. Joan den ikasturteko zenbait ikasleren iritziak bildu ditugu jarraian.



INAXIO AGIRRE

Euskaldun zaharra naiz, baina sekula ez naiz euskara ikasten ibili. Eta jubilatu aurreko azken urteetan lantegian ikusten nuen gazteek, gero eta gehiago, euskaraz idazten zituztela emailak-eta. Nik ulertu bai, baina idazteko orduan gaztelerara jotzen nuen, trebetasun faltagatik. Orduantxe hasi nintzen pentsatzen, erretiroa hartutakoan, denbora gehitxoago edukita, euskaltegian hasiko nintzela, eta halaxe hasi nintzen iazko irailean.

Ikasturte oso bat egin dut, eta oso gustura nago, jarraitzeko prest. Nire helburua ez da tituluak ateratzea, baizik eta gazteleraz edo, nire kasuan, ingelesez egiten dudan moduan, euskaraz ere gai izatea txukun idazteko. Esperientzia ona izaten ari da, eta animatzen dut jendea euskaltegira etortzera.



BEATRIZ LETXUGA

Euskaraz berba egiteari beldurra galdu eta euskara batua pittin bat ikasteko gogoz hasi nintzen iaz euskaltegian. Ikasturte osoa egin dut eta, egiari zor, esperientzia oso ona izan da. Benetan. Oso talde polita osatu dugu; denak gara oso desberdinak, baina oso giro ona sortu da gure artean, eta horrek asko laguntzen du. Barre asko egin dugu, eta oso gustura ibili gara. Gainera, irakasleak (Koldok) euskara maitatzen laguntzen dizu, eta niri behintzat indartu edo areagotu egin zait gehiago ikasteko gogoia. Nire helburua ez da titulua ateratzea, euskaraz berba egiteko samurtasuna lortzea baizik, eta jarraitzeko gogoz nago. Eta, jakina, herriar guztiak animatzen ditut.



**AITZIBER MARTINEZ
DE ALEGRIA**

C1 mailako titulua eskuratzeko helburuarekin hasi nintzen euskaltegian. Irakasle ikasketak (Haur Hezkuntza) egiten ari naiz eta curriculuma osatu nahi dut hurrengo urtera begira, irakasle lanetan jardun ahal izateko.

Ikasturte osoa egin dut euskaltegian eta esperientzia ona izan da. Hasieran pittin bat astuna egin zitzaidan, batez ere gramatika lantzeko ariketa asko egin behar izan genituelako. Baina ikasturteak aurrera egin ahala, gero eta eramangarriagoa izan da.

Nik gomendatuko nioke gazte jendeari euskaltegira etortzea. Kalean, oharkabea, akats ugari egiten ditugu (erdarakadak, oker erabilitako aditzak...) eta uste dut guztion ardura dela gure hizkuntza ondo ikastea eta txukun erabiltzea.

Menu berriak!

ERRESERBAK:

Helbidea,
Atzeko Kale, 32 behea

Telefona,
943 71 60 78



Euskararekin Match!



MATRIKULA EPEA

irailaren 2tik 20ra

Oñatiko Udal Euskaltegia (Bidebarrieta, 18)

Bulego ordutegia: 9:00 - 13:00 / 16:00 - 18:30

943 782 496 / euskaltegia@onati.eus

Ohiko beka sistemaz gain, iraupen luzeko langabetuentzat dohanik (informatu euskaltegian)

EUSKARAREKIN MATCH!

Azken aldian banabil, gogoz ikasteko euskara horregatik animatu naiz, ahaztu barruko ikara. Ei, lagun! entzungo dute, esan ozen lau haizetara, gure hizkuntza zabalduz, bai zurekin bagara!

Euskararekin match! Ongi etorri gugana laguna
Euskararekin match! Zatoz euskaltegira
Euskararekin match! Ongi etorri gugana laguna
Euskararekin match! Eta egin gurekin bat

Aizu, euskaltegira zoaz? Elkarrekin joango gara Bihotzetik ezpainetara, lehen hitzaren zirrara, Ei, lagun! Hauxe da martxa! Euskara hona eta hara! Gela barruan ikasitakoa, atera dezagun plazara.

Euskararekin match! Ongi etorri gugana laguna
Euskararekin match! Zatoz euskaltegira
Euskararekin match! Ongi etorri gugana laguna
Euskararekin match! Eta egin gurekin bat



SILVINA FONDRA

Iazko uztaillean iritsi nintzen Oñatira. Bizitzeko leku egokia iruditzen zait, eta, jakina, bertako gizartean integratu nahi badut, inguruan ikusten eta entzuten dudana ulertu nahi badut, beharrezko da euskara ikastea.

Udalak ematen duen laguntzari esker hasi nintzen euskaltegian, eta gustura ari naiz. Ikasturte osoa egin dut, A1 maila eskuratu dut, eta esperientzia ona izan da, hizkuntza ikasteaz gain, jendea ezagutzeko aukera ere eman didalako.

Jarraitzeko asmoa dut, eta animatu egiten dut jendea euskaltegira etortzera. Aprobetxatu beharreko aukera bat da euskarara hurbildu, beldurra galdu... gelan mamitzen den prozesua da. Poliki-poliki posible da euskara asimilatzea.



NATXO SIERRA

Medina del Campokoa (Valladolid) naiz eta urte eta erdi daramat Oñatin, Murgia auzoan bizi izaten. Ingeles irakaslea naiz. Oñatira iritsi eta berehala eman nuen izena euskaltegian, ikusten dudalako euskara oso garrantzitsua dela hemen. Nire ikasle gehienak euskaldunak dira, eta gurasoekin egiten ditugun bilerei begira ere, ondo dago euskaraz, pittin bat bederen, jakitea.

Iaz A1 eta A2 mailak gainditu nituen, eta aurtengo B1 atera dut. Eta jarraitzeko asmoa dut, poliki-poliki, maila txukuna lortu arte. Hizkuntza berezia da euskara, desberdina, eta horrek erakarri eta motibatu egiten nau. Oñatiko jendea asko pozten da euskara ikasteko ahalegina egiten ari naizela jakitean.



KIMBERLY NAUDÓN

Txiletarra naiz sortzez, eta duela bi urte iritsi nintzen Oñatira eta bizitzeko herri atsegina eta polita dela iruditzen zait. Hona iritsi berrikan jabetu nintzen herritar gehienek euskaraz hitz egiten dutela. Harrituta gelditu nintzen, ez bainuen euskararen berririk. Jakin-mina piztu zidan eta berehala eman nuen izena euskaltegian.

Hizkuntza zaila da, baina gogoia ipini eta saiaturaz gero ikas daiteke. Oraindik kosta egiten zait behar bezala hitz egitea, baina ari naiz, poliki-poliki. Jarraitzeko asmoa dut, ahalik eta gehien ikasi arte, eta, ahal bada, titulua lortu arte. Egia hori, asko gustatzen zait euskara. Luluragarria, zoragarria, iruditzen zait. Askok maite dut.

YURI PÁRAMOS LAZKANOITURBURU / EMAKUME TRANSEXUALA

"Gustatuko litzaidake jendeak den-dena kuestionatzea"

Duela urte gutxira arte transexualitatea tabua izan da Euskal Herrian. Transexualitatea, izatekoe-tan, helduen kontu bat zen, trabestismoa eta homosexualitatearekin nahastu izan dena. Haur edo gazte transexualez hitz egitea pentsaezina zen; isilarazi egiten zen, edo zuzendu edo zigortu. Zorionez, gauzak aldatuz doaz. Gero eta gehiago hitz egiten da errealitate honi buruz, gero eta informazio gehiago dago, eta, zorionez, gizarteak hasi da transexualen sexu-identitatea onartzen eta errrespetatzen. Ezjakintasunetik ezagutzarako bidea jorratzen ari gara; ukaziotik onarpenera; sufrimendutik ongizatera; tristuratik alaitasunera. Eta geuk ere gure aletxoa ipini nahi genuke elkarrizketa honen bidez. Yuri, 18 urteko neska transexualaren bizipenak eta ikuspuntua ezagutu nahi izan ditugu, erreallitate hau hobeto ulertu eta ezagutzera emateko asmoz.

Yurik duela bi urte erabaki zuen 'armairutik irtetea'. Ordura arte mutiltzat zuten inguruko guztiek, genitalek hala markatuta, baina bera neska sentitzen zen, eta hala adierazi zien etxekoei eta lagunei. Bi urte ondoren, bere buruarekin gustura eta seguru dagoela dio. Maiatzaren 24an bere esperientziari buruz hitz egin zuen Gaztelekuak antolatutako Sexualitate Astearen baitan, eta berba egiteko gogoz dagoela esan zuen.

Berba egiteko gogoz omen zaude.

Bai. Duela bi urte, armairutik irten nintzenean, dena zen berria; artean ez nengoen behar beste informatuta, kalera beldurrez irteten nintzen... Ez nengoen prest hitz egiteko. Orain, aldiz, seguruago sentitzen naiz, lotsak eta beldurrak galdu ditut, eta prest nago nire esperientziaren berba egiteko.

Zer esan nahi zenuke?

Niri gustatuko litzaidake jendeak dena kuestionatzea; gizarteak txikitatik erakusten edo ezartzen dizkigun patroik eta arau guztiak zalantzan jartzea. Ez izateko beldurrik onartzeko jarrera trans-foboak ditugula. Denok; neuk ere izan nituen. Gizarte transfoboa

garela onartu behar dugu, eta horri aurre egin informazioarekin.

Zu, neska transexuala zaitugu. Zuzena al da?

Bai, hala da. Ni jaio nintzenetik neska izan naiz, baina genero maskulinoa eman zitzaidan, nire genitalengatik.

Bereizi egin behar dira buruko sexua edo psikologikoa, eta sexu biologikoa (gorpuzkera, genitalak, itxura fisikoa...). Hau da, sexu-identitatea garunean dago, eta ez hankartean. Gauza bat da daukaguna, eta, bestea, garena.

Transexualitatea ez omen da aukeratzeko; jaio egiten da. Eta, normalean, pertsona transexualak txikitatik ohartzen omen dira beraien sexu-identitatea ez datorrela bat eman zaien sexuarekin. Zure kasuan nola izan zen bilakaera?

Desberdina izaten da prozesua pertsona bakoitzaren eta bere zirkunstantzien arabera. Nire kasuan, gogoan dut haurtzaroko jolasetan neska izatea gustuko nuela. Gero, adinean aurrera joan ahala, jokabide

Yurik 18 urte ditu eta orain dela bi urte erabaki zuen bere neska zela esatea



horri aurre edo aurka egiten hasi nintzen; zerbait gaizki egiten ari nintzela uste nuen, zeren, nire buruan, transexual hitzak konnotazio txarrak zeuzkan (prostituzioa...). Beraz, nahasmendutik arbuia pasa nintzen.

Baina, gero, nerabezaroan, nire gorputza garatzen hastearekin batera (ahots aldaketa, ilea gorputzean...) nabaritzen nuen zeozker ez zegoela ondo; alegia, nire buruan neukan nire irudia ez zela hori.

ARMAIRUTIK IRTETEA

16 urterekin erabaki zenuen neska sentitzen zinela esatea etxekoei eta ingurukoei. Zaila izan al zen?

Nire bi lagun minei esan nien aurrena. Yuri izena (liria esan nahi du japonieraz) hartu nuen, eta femeninoz hitz egiten hasi zitzaizkidan. Gainerako lagunei ere esan nien, poliki-poliki, eta hurrengo pausoa etxean esatea zen. Beldur nintzen ez ote zuten onartuko. Ez nuen giro txarrik sortu nahi. Ahizpari esan nion lehenengo, eta gero amari. Esan orduko negarrari eman nion. Zorionez, onartu zuten, bai amak eta bai aitak ere, eta, egia esan, zama handia kendu nuen gainetik; liberazio handia izan zen



niretako, ni neu izateko aukera izango nuelako hortik aurrera.

Gero *Naizen* elkartearekin (Adingabe Transexualen Familien Elkarte) harremanetan jarri nintzen, eta beraiek lagundu didate hortik aurrerako bidea egiten.

Lehenago esan ez izanaren pena edo damurik baduzu?

Ez. Egia da pertsona batzuk asko sufritzen dutela, ez direlako ausartzen urrats hori ematera, baina ez da nire kasua izan.

Beraz, lehenago esatea ez, baina nahiko nukeen lehenago jakin edo konturatu izan banintz. Txikia zarenean *blokeadoreak* har ditzakezu nerabezaroan gertatzen diren aldaketa fisiologikoak blokeatzeko, baina ni jabetu nintzenerako beranduegi zen, tamalez.

Askok aldatu al da zure eguneroko bizimodua transexuala

“Orain dela gutxira arte ez zen berba egiten transexualitateaz, eta orain, gutxienez, mahai gainean dagoen gai bat da. Egoera aldatuz doa, onerako, baina, hala ere, oraindik transfobia asko dago gizartean”

zinela esan zenuenetik?

Ni neu askoz gusturago nagoela. Horixe aldatu da. Gainerakoan, duela hiru urteko pertsona bera izaten jarraitzen dut. Orain, agian, segurtasun handiagoa dut nire buruarekin.

Zure adineko beste edozein nesken bizimodua egiten al duzu?

Bai. Bakoitza mundu bat da, noski, baina ez daukat arazorik nahi dudana egiteko.

Hondartzara joaten naizenean, bikiniaren beheko aldean gonatxo bat eramaten dut, begirada

edo komentarioak ekiditeko.

Aldagela edo dutxa publikoetan ere arazoak sortzen dira, jendea ez dagoelako oraindik ohituta transexualitatearekin elkarbizitzen. Beraz, ingurune publikoetan kontu pittin batekin ibiltzen naiz, zeren, zoritxarrez, oraindik ere badago jendea onartzen ez gaituena, eta gertatzen dira erasoak. Ni neu ez naiz joaten ez gimnasia, ez igerilekura... 10 urte nituenetik ez naiz aldagela publiko batean sartu. Ekidin egiten ditut halako egoerak, ez dudalako arazorik nahi.

Eraso transfoborik jasan behar izan al duzu inoiz?

Eraso fisikorik ez, baina hitzezkoak bai, zoritxarrez. Batez ere gau giroan; komentario iraingarriak; galdera inozoak, mutila ala neska naizen... Barre

(Hurrengo orrira)

 **Mekalki**
S. Coop. **mekanizatuak**
Mekanizazio zerbitzu integralak

Tel.: 943 78 19 11 | www.mekalki.es



eta burla egitea helburu duten komentarioak entzun behar izan ditut behin baino gehiagotan. Horrek erakusten du transexualitatea ez dela normalizat hartzen.

Kezkagarria da, gainera, komentario horiek jende gaztearen ahotan entzutea. Adineko pertsonengan ulergarria izan liteke, gaizki egon arren, beste pentsamolde bat dutelako, baina 16-20 urteko gazteek mentalitate irekiagoa izan beharko lukete.

Ligatzeko orduan zailtasunik izaten al da?

Nik ikusten dudana da, mutilak gehiago beldurtzen direla. Neskek samurrago onartzen dute; aurreiritzi gutxiago dute. Mutilek, aldiz, maskulinitatea eta heterosexualtasuna gorde behar dute. Behin hauxe esan zidan mutil batek: “zu nire gustukoa baldin bazara, ni gay bihurtzen naiz?”.

Askotan pentsatzen dut filtro moduko bat dela inozoen kontrakoa; baten batek esaten badit zeozer transexuala naizelako, badakit horrekin ez dudala ezer nahi eta automatikoki baztertu egiten dut. Aldiz, ikusten badut buruz irekia dela, agian sortuko da zerbait.

HORMONATZEA ETA EBAKUNTZA

Transexual batzuek onartu egiten dute beraien gorputza eta beste batzuek gorrotatu. Zuk tratamendu medikuarekin hastea erabaki zenuen, ezta?

Horretan ere bakoitza mundu bat gara. Batzuk konplexurik gabe bizi dira, baina nire kasuan ebakuntza egitea erabaki dut. Onartzen dut, nolabait gizarteak sortutako presioaren ondorioa dela; gizarteak erakutsi digu emakume izatea alua edukitzea dela, eta nire buruan oso errotuta eta barneratuta dago ideia hori. Ezin dut kontrolatu.

Onena izango litzateke, gizarteak ezartzen dituen patroik edo presio horiei kasu egin barik, pertsona bakoitzak aukeratzea gorputza aldatu ala ez, eta ez izatea derrigorrez egin beharreko gauza bat. Belaunaldi berriek as-



“Dibertsitateari beldurrik ez izatea eskatuko nioke jendeari. Berdin da gay, lesbiana, trans edo bisexual izan. Azken batean pertsonak gara, beste edozein bezalaxe”

katasun osoz erabaki ahal izatea nahiko nuke.

Nire kasuan, esan bezala, operatzea nahi dut, gusturago sentituko naizela uste dudalako.

Oraingoz hormonak hartzen ari zara, ezta?

Bai, ia bi urte daramat hormonak hartzen.

Zertarako, zehazki?

Mutil transexualek testosterona hartzen dute, injekzio edo gel bidez. Horrekin lortzen da hilerokoa ez izatea, ahotsa sendoa-goa, gorputzeko ileak haztea...

Neska transexualen kasuan, batetik testosterona blokeatzeko pilulak hartzen ditugu, eta bestetik estrogeno edo hormona femeninoak, hauek ere pilula bidez. Horri esker azala findu egiten da, aurpegia feminizatu,

gorputzeko ilea gutxitzen da, eta titiak ere pittin bat handitzen dira.

Hormonak hartzera mugatu barik, kirurgiaren aukera ere hor dago. Zer lortzen da?

Bulba bat edukitzea. Bagina bererreraikitzen da, klitori eta guzti (glandeko nerbioak baliatuz). Hau da, alu guztiz funtzionala edukitzea lortzeko aukera dago.

Mutil transexualen kasuan bi aukera egoten dira: zakil txiki baina funtzionala egitea, edo zakil handiagoa, baina bakarrik estetikoa, erekziorik eta sentsibilitate barik. Horregatik, oso mutil gutxi (%3 inguru) egiten dute genitalen ebakuntza. Emakumezkoetan %11ra igotzen da portzentajea.

Ebakuntza konplexuak dira. Pentsatzen dut ez dela erabaki erraza izango.

Ez. Gainera, prozesua hain luzea izanik, tarteka beldurrak eta zalantzak sortzen dira. Nik asko mediatu dut horri buruz bi urte hauetan, eta erabaki nuen baietz.

Zer esango zenioke urratsa ematera ausartzen ez den gazte transexualari?

Ez izateko beldurrik, eta informatu dadila. Hitz egin dezala elkarrekin edo beste pertsona transexualekin. Niregana batek baino gehiagok jo du, eta asko eskertu didate berba egite hutsa. Hasieran beldurrak egoten dira, normala den moduan, baina ez da mundua amaitzen.

Eta gizarteari zer?

Transexualitatea ez dela gauza arraro bat. Hemen ere badaude transexualak, eta ez da ezer gertatzen. Berdin da gay, lesbiana, trans edo bisexuala izatea. Ez izateko beldurrik dibertsitateari. Pertsonak gara, beste edozein bezala. Kontua da, guk azalpenak eman behar ditugula, gizarteak ezartzen dizkigun norma edo arauetatik irteten garelako. Beraz, pertsona horiei laguntzea eskatuko nieke, aliatuak izatea, eta ez jartzea traba gehiago. ■

Yurik ia bi urte darama hormonak hartzen, bere sexu-identitatearekin hobeto egokituko diren ezaugarriak garatzeko asmoz.

Gure ustez, hizkuntzak ikasteko,
hizkuntzak bizi egin behar dira



Horregatik, Oñatiko
MondragonLingua zentroan
zerbitzu berria sortu dugu:

MLspeaking

**ikasitakoa
praktikan jartzeko**

... baina badakizu,
MLspeaking zerbitzuaz gain,
gure betiko metodoekin jarraitzen dugu:

- **mlcertification:** hizkuntza-eskakizunak nahiz tituluak lortzeko metodo eraginkorra. Gure 10 ikasletik 9k gaingitzen ditu Cambridgeko azterketak.
- **mladapta:** ordutegi zaila baduzu eta zure denbora ondo antolatu behar baduzu, haxe da zure aukera.
- **mlplus:** aurrez aurreko eskolak eta online prestakuntza. Gure eskaintza eraginkorra.
- **mlkids:** aprobetxatu umeek ikasteko berez duten gaitasuna.

Ikusten duzun bezala,
edozein behar asetzeko planak ditugu.


**Gerturatu Oñatiko MondragonLingua
zentzora eta informatuko zaitugu.**

MATRIKULA ZABALIK

mondragon
Lingua

Montxon, 7.
Tel.- 943 71 60 00
mlainati@mondragonlingua.com





BIRGAITUKO DIREN ZUBIAK

Ondoko irudian adierazten da birgaituko diren lau zubien kokapena, Aiastui eta Olapoto artean

Udanako errepidea itxi egingo dute lau hilabeterako

► Aiastui eta Olapoto artean, errepide azpian dauden lau zubi birgaitzeko lanak egin behar ditu Foru Aldundiak. ► **Irailaren 16an** itxiko da errepidea.

► **Olabarrietako** bizilagunentzat ordezeko bideak egokituko dira auzoan barrena. Gainerako ibilgailu guztiek **Bergaratik** egin beharko dute joan-etorria.

Oñati eta Legazpi arteko GI-2630 errepidean, Olapoto eta Aiastui artean, Olan erreka gaineko lau zubi birgaitu behar ditu Foru Aldundiak, eta lan horiek egin ahal izateko Udanako errepidea itxita egongo da hurrengo lau hilabeteetan. Azken orduko aldaketarik ez bada, irailaren 16an itxiko dute errepidea.

Lanak bi fasetan egingo dira. Lehen fasean 13,320 eta 13,650 kilometro puntuetan dauden zubiak eraberrituko dituzte; beraz, errepidea zabalik egongo da Oñatiko herrigunetik Olabarrietako auzuneraino. Bigarren fasean 14,560 eta 14,840 kilometro puntuetako zubiak (Olapoto eta Artxubi parean) birgaituko

dituzte. Bai fase batean eta bai bestean, ordezeko bideak egokituko dira Olabartako bizilagunentzat, Liza-Etxe merenderotik eta Olabartako auzunean barrena doan bidetik.

Gainerako ibilgailu guztientzat ordea Udanako errepidea erabat itxita egongo da, eta Bergaratik egin beharko dituzte joan-etorriak.

LURRALDEBUS ZERBITZUA

GI-2630 errepidean egingo diren lanak direla eta, Lurraldebus zerbitzuaren DG04 lineak (Zumarraga-Legazpi-Oñati-Arrasate) Oñati eta Arrasate artean soilik emango du zerbitzua. Zumarraga eta

Legazpi arteko zerbitzua DG09 linearen bidez emango da (Zumarraga ospitalea-Legazpi-Zumarraga ospitalea).

Zumarraga eta Arrasate arteko bidaia-errentzat alternatiba honakoa da: DG03 linea (Zumarraga-Antzuola-Bergara), doako autobus aldaketa eginez DG05A (Eibar-Bergara-Arrasate-Gasteiz), DG10 (Bergara-Arrasate-Eskoriatza) eta DG11 (Eibar-Arrasate) lineatan.

Olan errekekako lau zubiak birgaitzeko lanek 628 mila euroko aurrekontua dute eta zubien segurtasuna hobetzea da helburua. Horretarako, zubien armadura berrituko dute, aurrefabrikatutako hormigoizko lauzak erabiliz.

ANE MERTZERIA

- Josteko zerak
- Lentzeria
- Umeen jantziak

Kale Barria, 54 OÑATI

Cartonajes Arregui, S.A.

- Kartoi ondulatuaren fabrikazioa
- Enbase eta enbalajeen fabrikazioa

Goribar auzoa. Tfnoak: 78 05 59 / 79 05 09
Faxa: 78 30 94. 79 Posta Kutxatila. OÑATI



Munazategin komun publikoa ipiniko du udalak, Partaidetzazko Aurrekontuetan herritarrek eskatu bezala

Komun publikoa instalatzeko gunea prest dago Munazategi inguruan, Torreauzo eta Madalena arteko pasealekuan. Udal brigadako langileek egin dute obra zibila eta komuna ekartzea besterik ez da falta. Urrian zehar komuna prest egotea espero dute udal arduradunek. Gogoratu, pasealekuetan komun publikoak ipintzea izan zela iaz burutu zen Partaidetzazko Aurrekontuetan boto gehien (1.109) jaso zuen proposamena. Bi komun jartzea onartu zen: Olabarrieta-Asentzio artean bat, eta Torreauzo-Madalena artean bestea..

ZEBRABIDEAK ARGIZTATU

Bide segurtasuna hobetzeko, zebraideak argizatzea izan zen Partaidetzazko Aurrekontuetan herritarrek aukeratu zuten laugarren proposamena. Kontuan hartuz herriko erdiguneko zenbait kaletan ur sarea berritzeko lanak egiten ari direla, udalak erabaki du Bakardadeko Ama kaleko, Portu kaleko eta Santa Marina plaza inguruko zebraideak argizatzea argi proiektore berriak ipiniz. ■

LANPOSTU DEIALDIAK

Udall Brigadarako 3 peoi lanpostu eta Kale Garbiketa Zerbitzuko 2 peoi lanpostu betetzeko deialdia egin du udalak. Brigadako lanpostuak 3 hilabeterako izango dira eta garbiketa zerbitzukoak 6 hilabeterako. Denak lanjardun osokoak. Interesatuak irailaren 10a baino lehen eman behar dute izena, Lanbideko webgunearen bidez edo telefonoz (945160600/630305452)

Aske da Ugarte, 22 urteren ondoren



22 urte kartzelan eman ostean, ekainaren 28an geratu zen aske Xabier Ugarte. Ehunka herritarrek egin zioten harrera. Eskerrak eman zizkien Ugartek, eta falta direnak ekarri arte lanean jarraitzeko deia luzatu zuen. "Kartzelak husterko urgentzia dago" esan zuen.

Olapotoko anfibioentzako putzuan egindako kalteak salatu dituzte

Olapoton anfibioentzat egokitu zen putzuak behin baino gehiagotan jasan dituen kalteak salatu ditu Oñatiko Naturzaliak taldeak: putzua inguratzen duen hesia eta zuhaitzak margotuta, inguruko enbor, maratila eta harriak putzura botata, botilak, brikak, goxoki poltsak eta edalontziak barreiatuta, putzuko lurteko estalki babeslea indarrez kentzeko ahaleginak...



"Honelako ekintza zentzugabeek bertako bizidunengan eragiten dituzten kalteak bistakoak direla esan beharrik ez dago, putzu hau hainbat espezieren bizitokia delako, eta baso igel gorria eta uhandre palmatus bertan ugaltzeko direlako, besteak beste" adierazi dute naturzaleek. "Horrelakorik ez errepikatzeko eta ingurua txukun eta bere horretan mantentzeko, putzuarekiko herritarren errespetua eta kontzientzia eskatzen dugu, azken finean, guztiok garelako izadiaren parte".

TXANDAREN kanpaina berria

Txanda dendarien elkarteak kanpaina berria jarriko du abian irailaren 9tik 30era. Jendeak selfiak atera behar ditu Txandako saltokietan eta gero Facebook edo Instagram-era bidali, edo email bidez dendarien elkartera. Urria hasieran, jasotako argazki guztien artean 15 bono zozketatuko dituzte Gasteizko Enigma Scape Room-erako. Txandako web orrialdean (www.txanda.eus) izango dute baldintzen berri.




TABERNA • JATETXEA
Bidebarrieta 6
Tel.: 943 71 62 96
20560 OÑATI

FAGOR
INDUSTRIA TALDE KOOPERATIBOA



Ingurunea eraldatu eta 'Ibili gurekin!'



Irailaren 19an, Mugikortasunaren Europako Astea ospatzeko, Oñatiko ikastetxeek ekimen bateratu baten hartuko dute parte, *hirigintza taktikoa* deritzona landuz. Eskolen ingurunea egun batez eraldatu eta herritarren mugikortasun ereduari buruzko hausnarketa bultzatu nahi da ekimen honen bidez.

Mugikortasunaren Europako Astea urtero ospatzen da irailaren 16tik 22ra bitartean. Helburu nagusi bat du aste hau ospatzeak: Mugikortasun jasagarria eta segurua bultzatzea gure auzo, herri eta hirietan.

Garraibide jasagarriaren alde apustu egiteko garaia da, beraz. Herritarrek garraibide alternatiboak erabiltzera animatzean -oinez edo bizikletan ibiltzea, adibidez- karbono-dioxido ixurketa murrizten dugu, airearen kalitatea hobetu eta herrigunea bizitzeko eta lan egiteko leku atsegina bilakatuz.

2019ko astea ospatzeko Europa osorako aukeratu den gaia oinez eta bizikletaz segurtasunez ibiltzea da, eta izenburua **Ibili gurekin!** da.

Oñatin, beste urte batez, herriko ikastetxe eta hezkuntza-komunitateek mugikortasun jasagarriaren alde duten konpromisoa azaleratuko dute, ekimen berezi bat antolatuz.

Irailaren 19an, osteguna, *Hirigintza taktikoa* deritzon ekimena egingo da ikastetxeetan. Eskola inguruan **eraldaketa efimeroa** burutuko da, egun horretan bakarrik. Ikastetxe inguruko espazio publikoan haurrek hautematen dituzten arazoak eta konponbide posibleak agerian jartzea da ekimenaren helburu nagusia; espazio publikoan kotxeek izan ohi duten protagonismoaren aurrean bestelako herrigunea aldarrikatzea. Herriko hezkuntza-komunitateek hartuko dute ekimena antolatzearen ardura, haurrak eta helduak elkarlanean, espazio publikoa nola erabiltzen dugun hausnartzeko.

Hirigintza-taktikozko ekimen hau Oñatiko Bagabiltz, Eskolako Bidea egitasmoaren barne kokatzen da. Ikastetxe eta hezkuntza-komunitate bakoitzak erabaki du zein ekimen burutu. Partaidetza aurten zabalagoa izango da gainera, Zuazola-Larraña institutuak ere parte hartuko Hurrengo hauek iaz egindako hirigintza taktikozko ekimenen laburpenak dira, aurten egingo denaren oinarri dira ekimen hauek.

Elkar Hezi LH

Arantzazuko Ama kalean, norabideetako bat ibilgailuentzat eten eta irabazitako espazioan ikasi eta jolas egiteko aukera izango dute ikasleek. Espaloi zabalago bat izanda eskolaren ingurunea nola eraldatuko litzatekeen esperimintatzeko aukera izango da (2018ko argazkia)



Urgain-Errekalde Herri Eskola

Eskolako sarreran dagoen ibilgailuen parkina jolasteko espazio bilakatuko da. (2018ko argazkia)

Txantxiku ikastola LH eta DBH

Ikastolako sarreran oinezkoendako gunea zabalduko da, ibilgailuek ezingo dituzte kiroldegi eta sarrera pareko aparkalekuak erabili eta irabazitako espazioan ikasi eta jolas egiteko aukera izango dute ikasleek. (2018ko argazkia)



Olaiturriko estalkiak itxoin egin beharko du, kiroldegiko obrak amaitu arte

2019-2021 tartean **15,5 milioi** inbertitzeko asmoa du udalak, eta horretarako **11 milioi** eskatuko ditu maileguan

Udalak esku artean dituen proiektuak eta aurrekontuak aztertu ostean, eta udal kontu hartzaileak egindako txostenaren gidale-
rroak aintzat hartuta, inbertsioen berrantolaketa egitea erabaki du gobernu taldeak. Ondorio nagusia da, Olaiturri estaltzeko proiektua (aurten has-
tekoa zena) atzeratu egingo dela kiroldegia berritzeko lehen faseko lanak amaitu arte.

“Kiroldegia berritzeko lanek 8 milioi euroko aurrekontua dute, eta proiektu estrategikoa izanik, udaleko hainbat baliabide tekniko eta pertsonal bideratuko ditugu, obrak ongi eta epeetan gauzatu ahal izateko” esan zuen Xabier Igartua Ogasun batzordeko buruak, inbertsioen berrantolaketa eta Olaiturriko proiektuaren geroratzea arrazoitzeko.

Kiroldegia berritu eta udalak gaur egun konprometitu dituen beste zenbait inbertsio burutzeaz gain, udalaren asmoa da hurrengo bi urteetan beste milioi euro bana bideratzea inbertsioetara, eta egoera ekonomikoa orain arteko bidetik badoa, partida berriak gehitzeko asmoa ere adierazi du Igartuak.

Orotara, 2019-2021 epealdian 15,5 milioiko inbertsio plana burutzeko asmoa du udal gobernu taldeak, eta horretarako 11 milioi euroko mailegua eskatu beharko du. Maileguaren zati bat (3 milioi) Oñatiko Ur Jauziak enpresari (Udala bera da akzioen %81en jabe) eskatuko dio, eta gainontzekoa finantza erakunderen bati. “Azken zortzi urteetan ia ezerezera murriztu da udalaren zorra eta, zorionez, udala



Olaiturri estaltzeko proiektua atzeratzea erabaki du udalak

egoera ekonomiko onean dago inbertsio hauei aurre egiteko” azaldu zuen Igartuak.

EAJren kritika

EAJk baiezeko botoa eman zion EH Bilduk proposatutako inbertsioen berrantolaketari, kiroldegia berritzeko obra babesten duelako, baina, hala ere, aurreko agintaldian EH Bilduk egindako kudeaketa “txarra” kritikatu eta udalaren egoera ekonomiko “kezkarriaz” ohartarazi zuen.

“Azken 2-3 urteetan arazo ekonomikoa zetorrela antzemanda, diru poltsa bat sortzea eta plan finantzarioa egitea eskatu diogu behin eta berriz EH Bilduri, baina ez du onartu eta, ondorioz, orain zerbitzuak murriztu, zergak igo eta udala hipotekatu egin beharko du” adierazi zuen Ainhoa Galdosek. “Ondare erosketako partida erabili izan balitz diru poltsa bat sortzeko, 3,6 milioi izango genituzke orain”.

EAJko bozeramaleak gaineratu zuen EH Bilduko alkategaiak ez zuela egia esan maiatzean, 2018ko aurrekontutik 3,4 milioiko gerakina zegoela eta, beraz, kiroldegiko lanei aurre egiteko 4,7 milioiko mailegua nahikoa zela esatean.

Zinegotzien dedikazioak eta lansariak

Uztaileko osoko bilkuran udalbatzak onartutakoaren arabera, alkateak erabateko dedikazioa izango du eta 3.480€-ko soldata gordina jasoko du. Gobernu taldeko beste hiru kide ere liberatuta egongo dira, dedikazio maila ezberdinarekin. Xabier Igartuak %50eko dedikazioa izango du (1.341€ko hileko gordina), Anik Zubizarretak %60koa (1.610€ko hileko gordina) eta Iñaki Olalde %30ekoa (805€ hileko gordina). Oposizioko bozeramale Ainhoa Galdosek %60ko dedikazioa izango du (1.449€ hileko gordina).

Talde politikoen eta zinegotzien ordainsariak

Udal talde politikoen kopuru finko bat (50,78€/hileko) eta kopuru aldakor bat (160,82€ zinegotzi ez-batzordeburu bakoitzeko, eta 707,25€ zinegotzi batzordeburu bakoitzeko) jasoko dute hilean.

Bestalde, zinegotziek 214,14€ jasoko dute hilero lan batzordeetan parte hartzeagatik. EH Bilduko zinegotziek uko egingo diote kopuru hau jasotzeari. “Kirolean, kulturean, arlo sozialean... musu-truk diharduten beste herritar asko bezala, gure kasuan lan instituzionala da herrigintzari egiten diogun ekarpena, eta horregatik ez dugu zertan gainsoldatarik izan” adierazi zuen Izaro Elorza alkateak. ■

**ARANBURU
ALTZARIAK**

Kale Zaharra, 21
Kale Barria, 11
Lizaur A., 7
OÑATI
Tfnok: 78 11 60 / 78 05 73

**ESTILO
GUZTIAK
ALTZARIAK**

**LANPARAK,
TAPIZAK,
KORTINAK**

Aran Hernandez

Zure ETXEA eguneratu gure inbertsio bat erabiliz bere salmenta edota alokairua ematzeko

626 114 382

aranhemandez@aranhemandez.com





Atal honetan, gutunek ezingo dute 1.800 baino karaktere gehiago izan. Aldizkariko erredakzioak eskubidea izango du gutunak laburtzeko. Gutunarekin batera igorlaren izen abizenak eta harremanetarako telefonoa bidali behar dira. Gutunak, egilearen izen eta abizenarekin argitaratuko dira.

Bidaurreta Dorrea z/g
20560 OÑATI
Tel.: 943 78 20 72
kontzejupetik@onati.eus



Oñateko Udala



Gipuzkoako Foru Aldundia

KONTZEJUPETIK

Argitaratzailea:

Oñateko Udala

Zuzendaria:

Iñigo Arregi

Publizitatea:

Aratz Losada

Diseinua eta Maketazioa:

Aratz Losada

Kolaboratzaileak:

Jerardo Elortza eta Euskaltegia

Inprimategia:

Gertu

Tirada:

5.500 ale

Lege gordailua:

SS-357/91

Posta-e:

kontzejupetik@onati.eus

Publizitatea:

publi@onati.eus

Bidaurreta Dorrea, Olakua auzoa
20560 Oñati (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 20 72

Etorriak badakar zentzua

Iñaki Idigoras

Kulturalki ez ezik, administrazio boki eta juridikoki ere euskaldunok bat ginen garai batean. Mundu ikuskera propioa eta beronen araberrako antolaketa eta ordenantza geneukan.

Nafar erresumaren garaia zen. Alboetako errege asekaizen erasoan aurrean geurea defendatzeko bitartekoa. Lortu genuen tarte batean. Gure legean, foruan, jasota genuen inor ez erasotzerik, defendatu besterik. Gure izaeraren erakusgarri.

Alboetakoek baina, horrelakorik ez, eta kolpatu gaituzte, zatikatu, 1200, 1512, 1521, 1640, 1833, 1936... gutako milaka hilez, menpean hartu. Erreinu ziren horiek inperio bilakatuz, eta ondoren, aro modernoan, estatu bana sortuz. Demokratikoak, beren legerako. Gure foruak ezaren hurrenean utziz, autoritarioak, guretako.

Ikuskera honetatik, zentzu honetan, azken defentsa saiakera militarra dugu berriki desagindako erakunde armatua. Ongi etorri Xabier, gorputzez preso eduki zaituzten barrotezko espetxetik, gogoz preso gaituzten eremu ustez libreria.

Beste ikuskera batetik, epe laburrekoa, mina besterik eragin ez duen erakundea izan da. Militarrek horretantxe baitu bere izatea: mina eraginez bestea makurtzea. Mina jasan dugunok sarri jo ohi dugu ordain gisa mina eragi-

tera. Etengabeko zurrumbilo mingarrian itotzeraino.

Menperakuntza zahar honek makina bat orbain utzi dizkigu, pertsonetan, antolakuntzan eta batez ere memorian. Izan bedi memoria hau zentzuzko bide baten

gidari, argi. Mendeetako zapalkuntzaren ondotik ere, erroetatik elikatuz, barru barruan daramagun izaeraren duintasuna loratuko duen bide.

Badiraugu, eta izan gogo gara.

Oñatzen 50. urteurrena

2020. urtean beteko du Oñatz dantza taldeak mende erdi, eta urte horietan guztietan egindako dantzen moduan, gurako gure urtean zehar erabili gura dugun leloa parte hartze prozesuz sortzea.

Horretarako aukera oñatiar orok du; izan ere, iraileko lehen aste bietan jarriko ditugu herriko hainbat txokotan zure proposamena egiteko orri, axota eta kuxkak.

Urte berezia datorkigu oñatiarroi orokorrean eta edonola ere Oñatzen parte den edonori, eta guztiokin batera gurako gure leloa aproposena sortzea.

Hausnartu, idatzi, proposatu!

Oñatzen 50. urteurrenako Komunikazio taldea

Danborradako entsegu egunak

HAURREN DANBORRADA

Ohiko entseguak: Irailak 3, 5, 10 eta 12 (Eltzian, 18:45-19:30)

Entsegu orokorrak: Irailak 17 eta 19 (Eltzian, 18:30-19:30)

-Danborradan parte hartuko duten haur guztientzat.

-Danborra edo barrila joko dutenek beraien neurriko larruzko gerrikoa eraman beharko dute

-Oinetakoak norberak erosi beharko ditu.

HELDUEN DANBORRADA

Aurten pieza berri bat joko da; beraz, entseguetara joatea beharrezkoa ikusten da.

Ohiko entseguak: Irailak 16, 18 eta 23 (Eltzian, 20:00)

Entsegu orokorra: Irailak 25 (Eltzian, 20:00)

OHARRA: Helduen danborradan jende berriak parte hartzeko deialdia luzatu du antolakuntzak: Danborrada mixto berri batean jotzeko aukera (+18 urte) edo banderak eramateko (+16 urte) aukera egongo litzateke.

Izen-ematea: <https://forms.gle/qPRJZT5quGh8dALc9>



Zubillaga auzoa 12 • Industrialdea • OÑATI (Gipuzkoa)
Tel.: 943 78 11 15 • www.batuak.com



Amestutako erretiroa

2019ko abuztuaren 3a betirako gordeko du oroimenean Markel Irizarrek. 16 urteko kirol ibilbide profesionalaren agurrekoa, Donostian hasi bazen ere, eguneko momenturik berezienak Oñatin igaro zituen Trek taldeko ziklista ohiak. Taldekide, lagun, senitarteko eta herritar asko inguratu baitziren bere lagunarteak antolatu zuen jai berezira.



ARITZ GORDO

OHAR ETA DEIALDIAK

Igeriketa ikastaro eta ur-ekintzetarako izen-emate deialdia

Ikasturte berriarekin batera, urritik abendura bitartean kiroldegian emango diren igeriketa ikastaroetan (haur eta helduentzat) eta ur-ekintzetan (*Aquagym* eta *Aquatrining*) izena emateko epea **irailaren 11tik 14ra** irekiko da. Kiroldegian bertan, eskuz, edo www.oñati.eus/zerbitzuak/ kirolak atarian eman ahal izango da izena. Hilaren 20an argitaratuko dira behin-behineko zerrendak.





30 etxebizitza

(2 - 3 - 4 logeekin)

B



San Martin gunean

Informazioa: 689 420 761

egaralur

Construcciones | Eraikuntza Lanak

* A5 etxebizitzari dagokion infografia

egaralur atzeratutako, legezko erabilera, legezko erabilera, legezko erabilera, legezko erabilera



Aurreko gizaldixan, basogintzaiak herriko ekonomian euki eben garrantziaz jardungo dogu erreportaje sail honetan.
Gerra osteko urtietan hogeittik gora zerra eta arotzerixa egon ziran Oñatin

© ERREPORTAJIA ©
ROBERTO ALTUNA ERLE

Lehenagoko baserritar eta artzain-gizartian aberastasuna lotuta eguen abere kopuruarekin, hau da, zenbat eta ganaduburu gehiago euki, orduan eta aberatsagua ziñan; *aberats* berbiak esangura hori dako, abere asko dittuena, alegia. Geruago, jentia lurra lantzetik -labrantzaatik- bizimodua etaraten hasi zanian, aberastasuna lur kopuruarekin lotzen zan, hau da, zenbat eta lur gehiago izan, orduan eta aberatsagua.

Gure kasuan, lur gehixenak basuak diranez, basuetan eguen aberastasuna, eta esaten zan "urlixak hainbeste mendi edo baso dittu, orduan aberatsa da". Eta basuetan arbolak dagoz, berez urtendakuak zein pertsonak sartutakuak.

1986ko geure herriko baso inbentarixuaren arabera, hostozabalak 1.087 ha. (% 13,74): haritz, pago, gaztaiña, hurritz, lizar, arte ... eta koniferak 5.816 ha (% 73,52): piñu insignisa, batez be. Baiña 1802ko Historiako Errege Akademixiak idatzittako liburuari esker, badakigu zein zan antziñako landaretzaiaren egoeria Oñatin: "(...) *Laurden bat bakarrik ebaltan da nekazaritzarako. Beste hiruretan paguak, haritzak, haltzak, korostuixak, lizarrak eta hurritzak ikusi leike, baitta otaduiak, elorrixak, illarrak ... be. Artixa mendixa da egur, ikatz eta herriko eraikuntzetarako egur gehixen emuten dauen parajia. Larra-leku zoragarrixaz gain, sendabedarrak eta sendalorak topau leike (...)*" Liburu horretan ezta piñuen aittamenik egitten, artian sartu barik egozelako,



jakiña. Aurrekomendi aldia, berriz, hasi Zubillagatik eta Udanaraiño, oso aberatsa zan hariztuittan eta paga-duittan, azken honetan urrixagua bazan be.

PIÑUAREN ETORRERIA

XIX. mendetik aurrera, Kaliforniatik ekarrirta sartzen hasi zan Monterrey piñua, radiata, insignisa edota piñu baltza moduan ezaguna gure artian. Insignisa gure lurrian ondo hazten dan arbola da eta baserrittarrendako dirua aguro irabazteko aukeria emuten ebenez, antziñako hariztui eta pagaduixak bota edo murriztuaz fan ziran piñuaren mesedetan.

Piñuak dirua emun eben, batez be XX. mendiaren bigarren herenian. Orduko esaeria zan, norbaittek piñudixak baeukan aberatsa zala, piñua ondo kotizauta eguelako: piñudixa bota eta ezkondu, edo, etxian obria egin (sukaldia eta baiñua aldatu, adibidez), edo, kalia etxia erosi, edo, kooperatibetan sartzeko norberaren partia ifintteko ebali izan ziran piñuak emundako diruok. Adarjoka esaten xakon parejia topautakuari: “Nobixo/a horrek baxakok/n piñurik?” Askok eukittiak diru-jabia zala esan gura ebelako. Piñudixak orduko ‘Cajadeahorrosak’ ziran!

Gaur egunian piñuak eztau dirurik egitten, eta dakonak danak salduta baleko gurago leuke, inpuestuak eta basuak eurak garbi mantenitteko lain be eztaueillako emuten. ■



GANADUA

Lehenago, aberastasuna lotuta eguen abere kopuruarekin; zenbat eta ganadu-buru gehixago euki, orduan eta aberatsagua; aberats berbiak horixe esan gura dau, abere asko dittuena, alegia

LURRA

Jentia hasi zanian bizimodua ataraten lurra lantzetik -labrantzaatik-, aberastasuna lur kopuruarekin lotzen zan; zenbat eta lur gehixago izan, orduan eta aberatsagua



PIÑUA

Piñuak dirua emun eben, batez be XX. mendiaren bigarren herenian. Ezkondu, etxia erosi, edota kooperatibetan sartzeko norberaren partia ifintteko ebali izan ziran piñuak emundako diruok. Piñudixak orduko ‘Cajadeahorrosak’ ziran



Ramon Irizar kalea, 3
Tel: 943 71 61 60
etxian@etxian.net
www.etxian.net





Mota guztietako zurgintza-lanak

Garibai 11 • Telf.: 943 78 14 54 • garibai@garibai-aroztegia.com
www.garibai-aroztegia.com

OÑATIKO UDALEKO

ARAZERIXAN

HAUR ETA GAZTERIA SAILA

*Gure ekintzen berri emango duen atala...*

HAUR ETA GAZTERIAKO UDAL ZERBITZUEN UDA!

Azkenengo urteetan bezala, aurtengoan ere ekintzez beteta izan dugu uda. Besteak beste, udaleku irekiak, arte udalekuak, kuboko eta topalekuko irteerak, ... Topera ibili gara eta horren erakusle dira ondorengo argazkiak. Milesker gurekin era batera edo bestera parte hartu duzuen guztiei, primeran pasatu dugu eta!!



**GARBIKETA
ADMINISTRAZIOA
ETA KONPONKETAK**

- Era guztietako garbiketak
- Jabegoen eta elkarten administrazioa
- Konponketa orokorrak



653 70 45 47

Oñati



**PINTURAS
URBIA
MARGOAK**

Arantzazuko Ama, 19A - 1A • 652 71 08 37 eta 943 71 62 15



Bezeroei laguntzea helburu

Neurrira eginiko **aseguru programa pertsonalizatua** eskaintzen dugu

Zein da zuen zerbitzuaren gakoa?

Zerbait berritzailea eskaintzen dugu, ohiko aseguru etxeen lan egiteko moduarekin alderatuz. Aseguruak ulertzeko filosofia desberdina, bezeroari benetan laguntzea da gure helburua. Hau lortu ahal izateko, aseguru programa pertsonalizatua eskaintzen dugu.

Zergatik da zuen proposamena interesgarria bezeroentzako?

Aholkularitza independente baten oinarritutako zerbitzua jasotzeko aukera dutelako. Hau lortzeko, bezero bakoitzaren norbanako baldintzak

aztertu eta bere beharretara egokitutako programa oso bat diseinatzen dugu.

Beraz, ez zarete konparatzaile soil bat?

Ez. Telebistan agertzen diren online konparatzaileak konpainien prezioak besterik ez dituzte alderatzen. Guk berriz, aseguruen inguruko aholkularitza espezializatua eskaintzen diegu gure bezeroei. Ezberdintzen gaituen beste puntu garrantzitsu bat, kontratatu ondorengo zerbitzua da. Ezbehar/istripu baten aurrean gu garelako bezeroaren kontaktu zuzena kasu guztietan (aseguru etxea edozein delarik).

«Prezio hobeak ematen dituzten konpainiak egon arren, produktuaren kalitatean oinarritzen da gure eskaintza»

«Ezbehar/istripu baten aurrean gu gara bezeroaren kontaktu zuzena kasu guztietan»

Zein aseguru etxerekin egiten duzue lan?

Merkatuko konpainia ezagun eta indartsuenekin egiten dugu lan (DKV, Reale, Mapfre, Allianz, Axa, Liberty, Plus Ultra-Catalana Occidente, Generali, Zurich, etab.). Prezio hobeak ematen dituzten konpainiak egon arren, produktuaren kalitatean oinarritzen da gure eskaintza.

Beste zerbait gehitu nahiko zenukete?

Eskerrak eman nahiko genizkieke guran konfiantza izan duten guztiei. Topikoa dirudien arren, bezeroa eta bion arteko harremanean dago ibilbide on baten funtsa.

2019 Ikasturtea Zubikoa Kiroldegia-ATE IREKIAK IRAILAK 10-14																								
Astelehena 9					Asteartea 10				Asteazkena 11				Osteguna 12				Ostirala 13				LARUNBATA 14			
Aerobik					Fit bike		Pilates		4. gela		Aerobik		Fit bike		Pilates		Aerobik		Fit bike		Aerobik		Fit bike	
07:35						Fit bike								Fit bike										
09:15						Pilates 1						Pilates 1				Pilates 1		Gimnasia Terap.				Fit bike		
10:15	Zumba							Gimnasia Terap.		Fit bike				Zumba								Body tone		
11:15	3. adina													3. adina		Aholkularitza presentziala								
13:30																								
15:00	Zumba					Fit bike-Body tone (2,25 ordu)						Zumba					zumba strong							
17:15						Pilates 2		Aholkularitza presentziala		zumba strong		Fit bike		Pilates 2				Pilates 2						
18:15	Zumba						Aholkularitza presentziala		Body Balance		Fit bike GAZTE						Fit bike		Aholkularitza presentziala					
19:15	Zumba step		Fit bike						Body tone		Fit bike		Aholkularitza presentziala		Zumba step		Fit bike				 URATI urdati berriz		 ergoites	
20:15	Body Balance		Fit bike		Pilates				Body tone				Pilates		Zumba				Pilates		 ZUBIKOA			

ATE IREKIAK KIROLDEGIKO FITNESS JARDUERETAN

Irailaren 10etik 14ra ate irekien jardunaldiak egingo dituzte kiroldegiko fitness gelan, goiko taulan adierazten den egun eta orduetan. Hastapen saio guztiak dohainik dira. Plazak mugatuak dira eta, beraz, lekua gordetzeko izena ematea gomendatzen da. Pilates-eko hastapen saioan parte hartzeko **derrigorrezkoa** da izena ematea. Hiru eguneko ikastaroa da.

Ate irekien egunetan aholkularitza zerbitzu presentziala egongo da kiroldegian, fitness jarduererik buruzko informazioa emateko. Bestela, ofati@egoitek.eus helbidean edo 943716375 zenbakian ere eska daiteke informazioa.

Udako protagonistak

Enaitz Sagasta, Ane Madina eta Kepa Aldekoa Espainiako igeriketa txapelketan parte hartu dute, eta **Ainara Uribarrik** mendi lasterketen munduko txapelketan



Enaitz, Kepa eta Ane, Josune Odriozola Aloña Mendiko igeriketa saileko prestatzaile-arekin

Ohi bezala, Aloña Mendiko igerilariak izan ditugu protagonista uda partean. Urtean zehar egindako lan bikainari esker, aurten ere hiru neska-mutilek lortu dute saria, estatu mailako txapelketan parte hartzea. Enaitz Sagasta Tarragonan lehiatu zen, alebin mailan, 100 eta 200 Bizkarrean. Ane Madina eta Kepa Aldekoa Bartzelonan aritu ziren, infantil mailako txapelketan; Aldekoa 100 eta 200 Bizkarrean eta Madina 50 librean eta 100 Bizkarrean.

Ainara Uribarrik berriz, L'Aquilan (Erroma) jokatu zen junior mailako mendi lasterketen munduko txapelketan 10. postua lortu zuen. Zorionak!



Ainara Uribarri Italian.

Oñatiko V. Mendi Martxa, irailaren 14an

Irailaren 14an egingo da Oñatiko V. Mendi Martxa, goizeko 7,30etan abiatuta, Foruen plazan. Aurten ere bi ibilbide egongo dira aukeran: luzea (32,5 km. /1.900m+) eta motza (22,2 km. /1.120m+). www.kirolprobak.com webgunean edo Aloña eta Iturri tabernetan eman daiteke izena. Mendi federatuek 12€ eta ez-federatuek 14€ (eguneari bertan 14€/16€).

Mendi jarduerak sustatzeko dirulaguntza

Aloña Mendiko Mendi sailak 400€ko dirulaguntza emango du, mendiarekin lotutako aktibitateak sustatzeko. Deialdian parte hartu ahal izateko, proiektuaren aurkezpen bat bidali behar da alonomendi.mendi@gmail.com helbidera, irailaren 30a baino lehen. Aurkeztutako proiektuen artean bat aukeratuko du mendi sailak. Laguntza jasotzen duenak proiektuaren inguruko hitzaldi bat eman beharko du Mendi Astearen baitan.

Gure beharra baduzu,
ondo-ondoan gaituzu.
Arrasaten.

Hain ondo zaindu nahi
zaitugunez, **Arratsaten bertan**
ere artatuko zaitu Zuatzu
klinikako espezialista-taldeak,
20 urtetik gorako esperientzia
duenak.

Ginekologia eta obstetrizia.
Jaio aurreko diagnostikoa.
Bularretako patologia.
Laguntza bidezko ugalketa.

Nafarroa Etorbidea, 4 (bajo)
20500 Mondragón
943 792 018



www.clinicazuatzu.com

Etxetik kanpora

ikastera, haztera eta **erronka berrien bila**

**Asier Ugarte**

31 urte

Anaitasuna



» Bigarren urtea egingo du jarraian Azkoitiko taldean. Lehenago ere ibili zen, 2013/14 denboraldian. Bere futbolari ibilbideko azken txanpan, ilusio berrien bila jo zuen Azkoitira, eta oso gustura dabil, futbolaz disfrutatzen, lagunarte ederrean. Iaz lehen bi postuetan egin zuten urte osoa, nahiz sari gabe geratu azkenean. Aurtur ere goian ibili nahi dute.

Amaitu zaie opor garaia Oñatiko futbol jokalariei. Aurrendenboraldiko saio gogor eta luzeak atzean utzita, denboraldi berria estreinatzeko desiatzen daude guztiak. Etxetik kanpora, futbolaren beste errealitate batzuk ezagutzen dabiltzan bederatzi jokalariren berri jaso nahi izan dugu ondorengo erreportajeon.

Normalean, Aloña Mendiko taldeengan jarri izan ohi dugu gure arreta puntua baina oraingo honetan, geroz eta gehiago zabaltzen ari den errealitate bati jaramon egin nahi diogu; Oñatikoa izan arren, etxetik kanpoko taldeetan, erronka ezberdinetan

murgildu diren herriko futbolari kasua ezagutu nahi dugu.

9 jokalaria ezberdin izanik, oso zaila da guztiak bateratzea. Bakoitzak bere mailaren arabera helburuak izaten baititu. Hala ere, denak zaildu dira Aloñaren harrobian. "Guretzat oso pozgarria da Alo-

ñan hazitako jokalariek maila altuagoko taldeetan jokatzeari onartu digu Javier Azpiazu futbol saileko presidenteari.

Bada, etxeko ateak zabalik geldituko dira nahi dutenean itzultzeko, baina ahal duten bitartean, segi dezatela ikasten eta hazten.

«Guretzat pozgarria da guk hezitako jokalariek maila altuagoko taldeetara joateko aukera izatea».

JAVI AZPIAZU

Futbol saileko presidentea



Bezeroen beharrei erantzuteko prest!

Kontabilitate administratiboa • Fiskalitatea
Lan-arloa • Kontu-ikuskaritza
Merkataritza • Abokatuak

Euskadi Etorbidea 6

T.: 943 781 648

onati@gualbiasesores.com

-

www.gualbiasesores.com



Ane Sanz De Galdeano
25 urte
Electrocor C.F.



Andoni Ugarte
24 urte
Oviedo



Miren Sanz De Galdeano
21 urte
Electrocor C.F.



Joseba Calvoecheaga
18 urte
Bergara

» Madrilen ari da jokatzeko Ane. Duela zortzi urte joan zen ikastera eta Preferente mailako *Las Rozas* taldean hasi zen, baina *Electrocor* klubak nesken taldea sortu zuen duela hiru urte, eta bertan dihardu orain, Erregional mailan. Erdiko atzelari postuan jokatzeko du, taldearen bizkarrezurra osatuz, Miren ahizparekin batera. Preferentera igotzea dute helburu.

» Realean 10 urtetik gorako ibilbidea egin ostean, iaz Oviedo taldearen filiallean jokatu zuen Ugartek 2.B mailan. Oso lan ona egin zuten, bai taldeak eta baita Andonik berak ere, eta aurtengo Oviedoko lehen taldean ari da, 2.A mailan. Kategoria berriari neurria hartu eta, poliki poliki, hamaikakoa lekutxo bat egitea izango da Andoniren aurtengo helburua.

» Duela hiru urte joan zen Madrilerik ikastera, eta *Electrocor* taldean ari da Ane ahizparekin batera. Euskarri postuan jokatu ohi du, zelai erdian. Lagun talde handia osatu dute eta oso gustura daude. Aurtengo, gainera, Iberdrola Ligara igo den *El Tacón* taldearekin hitzarmena sinatu dute eta horrek bultzada berria emango dio taldeari.

» Adinez jubenila bada ere, Bergarako Ohorezko Erregional mailako taldean ariko da aurtengo aurrelari onatarrak. Eibarren eman ditu azken hiru denboraldiak, baina irteera erabaki du erronka berrien bila. Talde gaztea du Bergarak, eta mailari neurria hartzea izango da helburua. Pertsonalki, berriz, konfiantza berreskuratu eta barruan duen guztia ateratzea.



Elene Guridi
17 urte
Reala



Eider Egaña
17 urte
Eibar



Markel Aldekoa
13 urte
Reala



Oier Cueva
12 urte
Reala

» Eibarren bi urte jokatu ondoren iaz iritsi zen Realaren bigarren taldera. Euskadiko 17 urte azpiko selekzioarekin ere jokatu zuen. Lehen taldearekin osatu du denboraldi-aurrea, baina Gazte mailako Euskal Ligan jokatu du. Erdilari arduratu postuan aritzen da. Oso gustura dago, eta lehen taldearekin jokatzera iristeko ilusioa du.

» Hirugarren denboraldia egingo du armaginekin. Atezain postuan jokatzeko du, eta Eibarreko lehen taldearekin entrenatzen badu ere (1. B mailara igo zen iaz) Gazte mailako Ohorezko Ligan jokatu du Eiderrek. Aste-lau entrenamendu saio egiten ditu Eibarren, eta gustura ari da. Ikasten jarraitzea da helburua, goiko taldean jokatzera iritsi ahal izateko.

» Atezaina da eta bigarren denboraldia du Realean. Ohorezko Infantil mailako taldean jokatu du. Oso gustura dago eta asko ari da ikasten. Atezainen lan saio espezifikoak egiteaz gain, hanketako baloi jokoa ere lantzen dute. Klubak eskaintzen dien arreta eta laguntzarekin (fisioak, irakasleak...) oso gustura dago. Ikasten jarraitzeko ilusio handia du.

» Iaz hainbat entrenamendutan eta torneotan aritu ostean, aurtengo egingo du aurreneko denboraldia Realean, Infantil mailako taldean, Agustin Gajateren aginduetara. Hegaleko aurrelaria da; hanka biek jokatzeko du, azkarra da eta golegilea. Denboraldiari ekiteko ilusioz gainezka dagoela esan digu. Bere maila ematea eta ikasten jarraitzea du helburu.

Oñatiko emakume kirolariak Begi Bistan

Udaberriko ARGÍ festibaletik San Miel jaixetara gatoz, hauetan ere argazkiak plazaratuz. Orduko bandalismoak gogaitu gintuen. Gogo betez gatoz berriro.

Aurtengo Begi Bistan edizioan begirada desberdin batekin jarri nahi ditugu bistan Oñatiko balioak: natur eta hirigintza paisaiak utzi eta pertsonalagoak jorratuz.

Beste alor batzuetan bezalaxe, kirolean ere emakumeok poliki-poliki sartu gara. Umil bezain duin. Espazio ez ohikoetan gorputz eta gogoz saiatuz, ohiko bihurtu ditugun arte.

Foruen enparantzako eraikinak eusten dituzten zuta-beetan herriko zenbait emakume kirolariren egiteko hori bistaratu nahi izan dugu.

Eusteari dagokionean, emakumeok badakigu zerbait. Euste soilak gogaitu egiten du, baina. Eraldatu eta loratzen ere iaioak garela erakutsi nahi dugu argazkiok islatzen duten barne indarrarekin.

Plazan gaude, emeki arrotuta.



Ilunpetan Argazki Taldea

Udal liburutegiko irakurle taldeetan izena emateko epea zabalik

Udazkenarekin batera, udal liburutegiko irakurle talde ezberdinak jarriko dira martxan berri ere. Lau talde egongo dira aurtengo: euskarazko irakurle taldea, gaztelarazko bi talde, eta psikologiako bat. Jarraian ikus dezakezue talde bakoitzak izango duen egutegia eta ordutegia. Irailean zehar eman behar da izena liburutegian.

● TERTULIXAN EUSKARAZ

Urriak 30, azaroak 27, urtarrilak 29, Otsailak 26, Martxoak 25, Apirilak 29 eta Maiatzak 27

Asteazkenetan, 18:30etan

● TERTULIXAN GAZTELANIAZ

Urriak 22, azaroak 19, urtarrilak 21, otsailak 18, martxoak 17, apirilak 21 eta maiatzak 19).

Asteartetan

BI TALDE: Azken urteetan jende asko gelditu da kanpoan leku faltagatik. Horregatik, datorren ikasturtean bi talde egingo ditugu: 17:00 – 18:30 eta 18:45 – 20:15.

● PSIKOLOGIA IRAKURLE TALDEA

Azaroak 5, abenduak 3, urtarrilak 7, otsailak 4, martxoak 3, martxoak 31 eta maiatzak 5.

Asteartetan, 18:30etan

ANTZERKI ESKOLA

jarriko du martxan Irazanek urritik aurrera

Lau urteko ibilbidea egin du jada Irazan Antzerki Guneak, eta urrats berri bat ematea erabaki du, proiektuari sendotasuna emateko asmoz.

Urritik aurrera gazteei zuzendutako Antzerki Eskola jarriko du martxan, 5 eta 16 urte arteko neska-mutikoei zuzenduta, bi taldetan banatuta, adinaren arabera.

Antzerkizaleasuna sustatzea izango da eskolaren helburuetako bat; antzerkiarekiko grina piztea, modu ludikoan. Baina beste hainbat helburu jorratzeko aukera ere eskainiko du antzerki eskolak: hitz eta keinu bidezko komunikazioa, sentimenduen eta emozioen kudeaketa eta adierazpena, irudimena eta sormena, talde-lana, elkarlana, errespetua, hezkidetzatza, inklusioa... Haur eta gazteen nortasuna garatzeko tresna oso egokia da antzerkia.

Ondo pasatu, momentua gozatu eta beren burua ezagutu nahi duten guztiak daude gonbidatuta antzerki eskolan parte hartzera. “Epaiketarik gabeko gunea izango da” adierazi du Irazan taldeko Josu Zubiak; “ez dugu inor epaituko eta, beraz, ez dago zertan lotsatu edo beldurtu. Hain justu ere, lotsa eta beldur horiek gainditzeko edo kudeatzeko lagunduko digun baliabide bat izango da antzerki eskola eta, beraz, ateak zabalik daude edonorentzat”. Herriko jaiak amaitu ostean jarriko da martxan antzerki eskola, Eltzian. ■



TALDEAK

► **HAURRAK** (1. maila - 5. maila)
Astearte eta ostegunak (17:00-18:30)

► **NERABEAK** (6. maila - DBH 4)
Astearte eta ostegunak (18:30-20:00)

► **HELDUAK** (16 urtetik gora)
Hilean asteburu bat.

Informazioa eta izen-ematea:
irazantaldea@gmail.com (Josu) /
659031036

CORTABARRIA

INMOBILIARI AGENTZIA • GESTORIA

Etxe eta lokalen gestio orokorrak

- Administrazioa
- Informazioa
- Salmenta
- Haziendarekin
- Trafikorekin
- Herentziak, eta abar

Kale Barria, 42 behea • Tel.: 943 78 05 87 • email: inkorta@teletel.es



MODA BEREZIA

Kale Barria, 12
Tel. Faxa: 943 71 62 40

Oñatin hasiko da Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa irailaren 14an

Final-zortzirenetako aurreneko saioa izango da Santa Ana aretoan, 17:00etan, eta Maider Arregi oñatiarra ariko da bertan

Lau urtean behin jokatzen den Gipuzkoako Bertsolari Txapelketa Oñatin abiatuko da irailaren 14an. Santa Ana aretoan izango da final-zortzirenetako aurreneko saioa, eta bertan ariko da txapelketarako sailkatu den Oñatiko ordezkari bakarra, Maider Arregi. Felix Zubia, Aratz Igarzabal, Haritz Mujika, Andoni Mujika eta Amaia Iturriotz izango ditu lagun eta lehiakide.

Denera, 42 bertsolarik parte hartuko dute final-zortzirenetan, zazpi saiotan banatuta, eta 25ek egingo dute aurrera: saio bakoitzeko irabazleek eta puntuazio altuena lortzen duten 17 bertsolariek. Final-laurdenetan orain dela lau urteko sei finalistak batuko zaizkie. Finala abenduaren 14an izango da Donostiako Ilunben. Saio guztietarako sarrerak irailaren 2an jarriko dira salgai www.bertsosarrerak.eus webgunean. Saioen egunetan ere jarriko dira salgai, txarteldegietan.



Orain dela lau urteko txapelketan final-laurdenetara iritsi zen Maider Arregi. Saio hartakoa da argazkia

Plazako dantzen ikastaroa eskainiko du aurten ere Musika Eskolak



Urrian hasi eta ekainera arte luzatuko da ikastaroa. Plazako dantza tradizionalak (lotuan, soltean, jauziak, kontradantzak, ingurutxoak, Baztango mutildantzak, sokadantzak...) ikasteko aukera egongo da Patxi Monteroren eskutik. Izen-ematea eta informazioa, irailaren 21etik 26ra: 943783174 / idezkaritza@jazzpiazumusikaeskola.com

Business

Kids

Adults

Camps

Metodo berriekin hizkuntzak ikas itzazu!

Tailerrak, gamifikazioa, critical thinking,
E-learning, etab.
WORKSHOP BERRIAK: Arts & Crafts,
Science & Experiments eta Theatre.
3 urtetik aurrera!

Koma Oñati
San Lorenzo 4, behea
+ 34 943 718 208

Koma Arrasate
Iturriotz 35, behea
+ 34 943 712 631

sfernandez@komalingua.com

koma
language
services

www.komalingua.com

HERRI ANTZERKIA

1839ko Oñatiko Ituna

Lehen Karlistadari amaiera eman zion itunaren inguruko antzerkia egingo du aurten Olaitturrik



Andres Zabala Karlos erregegaia izango da; **Marian Altube** M^a Frantziska Braganza, Don Karlosen lehen emaztea; **Eli Igartua** Maria Kristina, Espainiako erregeordea; **Migel Angel Agirre** Zumalakarregi jenerala, **Jabier Atxa** Espartero eta **Jexux Odiozola** Maroto. Guztira 22 antzezle agertuko dira ohol-tza gainean. **Iñazio Irizarrek** idatzi eta zuzendutako antzez-lana da.

1 839. urtera, Bigarren Karlista Gerraren amaierara, eramango gaitu Olaitturri Kultur Elkarteak aurtengo jaietan taularatuko duen herri-antzerkiak. Historia liburu gehienek arabera, Maroto eta Espartero jeneralen arteko Bergarako besarkadarekin amaitu zen sei urtez luzatu zen gudu hura, baina gutxitan aipatzen da, bi egun lehenago Oñatiko Lazarraga jauregian sinatu zela bake ituna.

180 urte bete dira aurten, abuztuaren 29an, itun hura sinatu zenetik, eta hori gogoratuz, 'Oñatiko Ituna Lehen Karlistadan' antzez-lana taularatuko du Olaitturri irailaren 29an, Santa Ana aretoan. Gerraren zergatiak, Oñatin utzi zituen ondorioak, Zumalakarregi jeneralaren heriotza, eta gerrari amaiera eman zion Oñatiko Itunaren ingurukoak laburbiltzen dira antzez-lanean, ekitaldiak eta bertsoak tartekatuz, ohi bezala. Iñazio Irizarrek idatzi eta zuzendu du antzez-lana, eta Olaitturri taldeko 22 lagunek parte hartzen dute antzezle lanetan.



Espartero eta Maroto jeneralen Bergarako besarkadarekin irudikatu zen bigarren karlistadaren amaiera, baina bi egun lehenago Oñatiko Lazarraga jauregian sinatu zen bake ituna, 1839ko abuztuaren 29an, duela 180 urte

KULTUR HAMABOSTALDIA

Antzerkira mugatu barik, hitzaldi ziklo bat antolatu du Olaitturri kultur elkarteak, antzez-lanean jorratzen den gerratearen testuinguru historiko, politiko eta soziala hobeto ulertzen laguntzeko. Bi karlistadak, Zumalakarregi jenerala eta euskal Foruen erregimena jorratuko dituzte hitzaldi banatan (ikus egitaraua ondoko orrian).

ARRIZABALAGA
Aroztegia

Berezo Ind. 10
Tel. 943 78 14 64

PAKITA
Altzariak

Sta. Marina, 6
Tel. 943 78 02 21

SUKALDE ALTZARIAK • ALTZARI RUSTIKOAK • NEURRIRA ENPOTRATURIKO ALTZARIAK

IRAZOLA

Okindegia

Ostiral, asteburu
eta jai egunetan
baserrniko agia,
egurrezko labean egina

Larraña auzoa, 44 • Tel.: 943 78 25 97 • Mug.: 688 630 754

KULTUR HAMABOSTALDIA

'1839ko Oñatiko Ituna Lehen Karlistadan'

Antzezlanen taulartzeaz gain, hiru hitzaldi antolatuta ditu Olaiturri kultur elkarteak, gerrate karlistei buruz, Zumalakarregi jeneralari buruz eta Euskal Herriko foru erregimenaz gehiago ezagutzeko asmoz. Hona egitaraua:

HITZALDIAK

Kultur etxean, 19:00etan



Irailak 17 - Asteartea

Gaia: *Hemeretzigarren mendeko bi karlistadak*
Hizlaria: Iñazio Irizar (Olaiturri)
Aurkezlea: Karmen Biain (Olaiturri)

Irailak 19 - Osteguna

Gaia: *Tomas Zimalakarregi jenerala*
Hizlaria: Eider Arruti (Zumalakarregi museoa)
Aurkezlea: Migel Angel Agirre (Olaiturri)



Irailak 24 - Asteartea

Gaia: *Euskal Herriko Foru erregimena*
Hizlaria: Jon Arrieta (EHU/UPV)
Aurkezlea: Ana Mari Markuleta (Olaiturri)

ANTZERKI EMANALDIAK

Irailak 26 - Osteguna
Santa Ana antzokia, 19:00
AURRE-ESTREINALDIA:
Oñatiko ituna Lehen karlistadan

Irailak 29 - Igandea
Santa Ana antzokia, 19:00
ESTREINALDIA: *Oñatiko ituna Lehen karlistadan*



Sarrerak: Txokolateixan salgai, irailaren 12tik aurrera.
Prezioa: aurrez 7€, egunean bertan 10€.
Aurre-estreinaldiko saioa dohainik izango da
Antolatzailea: Olaiturri Kultur Elkarte



Irailaren 20tik 23ra estreinatuko dute 'Oxigenoa euskarari 6.000 metroan ere' dokumentala

Irailaren 20ko asteburuan, kultur etxeko zine aretoan ikusi ahal izango da 'Oxigenoa euskarari 6.000 metroan ere' ekimenean parte hartu zuten gazteen bizipenak kontatzen dituen dokumentala.

Araba, Bizkaia, Gipuzkoa, Nafarroa eta Lapurdiko 12 gaztek eta *Khumbu* (Nepal) eskualdeko 9 xerpa gaztek parte hartu zuten *Txomolungma* (Everest) gailurraren inguruan iazko udazkenean egindako ibilaldian. Himalaiara euskara eraman eta *Xerpa* hizkuntzarekiko elkartasuna adieraztea zen, besteak beste, ekimenaren helburua.

Mendizale gazteen esperientzia eta ibilerak azaltzeaz gain, Xerpa herriaren jatorria, mendizaletasuna, harremanak eta garraiatzaileen lana aztertzen ditu dokumentalak (60'). Irailaren 20ko emanaldia 19:00etan hasiko da eta ondoren solasaldia egongo da. Gainerako emanaldiak ohiko zine ordutegian izango dira. Denak dohainik.

caravanas



• **GALDARAGINTZA - CALDERERIA**
Ondul zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 71 63 50

www.caravanasonate.com

• **BIZIKLETAK**
• **ERREMOLKEAK**
• **TXIRRINDULARITZARAKO OSAGARRIAK**
Ondul zuhaiztia, 25 • Tel.: 943 78 05 65
Atzeko kale, 32 (erakusketa)

Haurren Eguna

Euskal Herriko hainbat herritako haur dantzariak ibiliko dira kalez kale

Egun odoan zehar

**Kontzertua**

Barakaldoko *Parabellum* eta Oñatiko *Lokuria* taldeen kontzertua

22:30 Gaztelekuan

MUSIKA

IRAILAK 13 / 22:00

PUNK-ROCK JAIALDIA

Biznaga (Madril), *Bullet Proof Lovers* (Donostia) eta *Tilikum* (Oñati). *San Martin*.

IRAILAK 20 / 22:30

PARABELLUM+LOKURIA

Barakaldoko punk-rock eta Oñatiko hardcore-punk taldeek kontzertua emango dute (8€). *Gaztelekuan*.

IRAILAK 20 / 18:00

JABI SOUND

Dantzarako giroa Pake Leku elkartearen Dohainik. *Pake Leku*.

IRAILAK 21 / 22:00

OROIMENEAN

Hots Abesbatzaren ikus-entzunezkoa. *Zubikoan*.

HITZALDIAK

IRAILAK 17 / 19:00

XIX. MENDEKO BI KARLISTADAK

Hizlaria: Iñazio Irizar *Kultur etxean*

IRAILAK 19 / 19:00

TOMAS ZUMALAKARREGI JENERALA

Hizlaria: Eider Arruti (Zumalakarregi Museoa) *Kultur etxean*



IRAILAK 22

TXAPELKETA**ARTZAIN TXAKURREN TXAPELKETA**

Euskal Herriko eta nazioarteko artzain txakurrik onenen artetko lehiaketa

Santa Lutzian (10:30)

IRAILAK 24 / 19:00

EUSKAL HERRIKO FORU ERREGIMENA

Hizlaria: Jon Arrieta (EHU/UPV) *Kultur etxean*

ANTZERKIA

IRAILAK 26 / 19:00

OÑATIKO ITUNA LEHEN KARLISTADAN

Aurre-estreinaldia *Santa Ana aretoan*

IRAILAK 29 / 19:00

OÑATIKO ITUNA LEHEN KARLISTADAN

Estreinaldia *Santa Ana aretoan*

IKASTAROAK**YOGA IKASTAROA. HASTAPEN MAILA.**

Oñatiko Sanatana Dharma eskolak antolatuta. Irailaren 16tik 19ra eta 23tik 26ra. Ordutegia: 19:30-21:00. Informazioa eta izen-ematea: 610 953 794 edo yogaonati@gmail.com

PAKE LEKUKO IKASTAROAK

2019-2020 ikasturtean egingo diren ikastaroetan izena emateko epea zabalik dago irailaren 24ra arte: *Bitxigintza, Areto Dantzak, Dantza Linean,*

Ingelesa, Euskara, Informatika (KZ Gunean), *Irakur taldea, Marrazketa-Akuarela, Memoria tailerra, Orratz lanak, Puntua, Solfeoa, Antzerkia* eta *Yoga*.

ELIKADURA BEGANOIA ETA SUKALDARITZA MAKROBIOTIKOA

Hilabetero, larunbat edo igande batean. Urritik maiatzera. Izena emateko edota informazioa eskatzeko, deitu: 658 71 90 89 (Macrosano)

DANBORRADAK

IRAILAK 21 / 18:00

HAURREN DANBORRADA

Haurren danborrada herriko kaleetan barrena.

IRAILAK 28 / 23:00

HELDUEN DANBORRADA

Helduen danborrada herriko kaleetan barrena.

BIDAIK

IRAILAK 10

LANZAROTERA

Pake Lekuk antolatuta, 10 eguneko bidaia herriko jubituentzat.



ZURICH

M^o del Mar Urrutia Negueruela

Motxon Kalea 5 behea
Tel./Faxa: 943 78 30 09 • Mugikorra: 620 77 66 20

HARALD LINDER

ETXEETAN ERA GUZTETAKO KONPONKETAK
PERSIANAK, LERIOAK, LUR FLOTANTEAK, ARGIAK, PINTURA LANAK...



DISEINATZAILE ETA MONTATZAILEAK

SUKALDEAK, KOMUNAK eta ASKOZ GENIAGO

OLAKUA 12 B 4 ezk. - 20560 OÑATI - GIPUZKOA

695 78 91 04 - 943 04 47 77

AUZOETAKO JAIKAK

IRAILAK 6 - 9

ATZEKO KALEKO JAIKAK

Irailak 6: 17:00 Zinta lasterketa eta 'Holi' jaialdia; 19:30 Txorimaloak, dultzainero taldeak lagunduta eta presoen aldeko elkarretaratzea; 22:30 Kontzertua (Kilimak, No Limits eta DJ Elepunto).

Irailak 7: 13:00 Auzokoen omenezko salda; 17:30 Sokamuturra eta poniak; 19:00 Garagardo dastaketa; 19:30 Txorimaloak 20:30 Elektropapo txaranga; 00:00 Piroteknia saioa eta suzko zezena; Ondoren, kontzertua (Egurrera eta Kitto), Holi jaia eta zinta lasterketa.

Irailak 8: 15:00 Mus txapelketa; 16:00 Txirrindulari proba; 18:30 Txirrindulari proba; 20:00 Gauargi taldea.

IRAILAK 13 - 15

SAN MARTINGO JAIKAK

Irailak 13: 18:59 Martin-txo txarrixaren subidoia; 19:02 Txorimaluak; 19:07 Pintxopotia; 22:02 Kontzertua (Biznaga, Bullet Proof Lovers eta Tilikum)

Irailak 14: 11:00 Txikitrail (izen-emitia, 10:30); 12:30 Umiendako jolasak; 13:00 Oñatz taldeko gaztetxo saioa; 16:30 Mus Txapelketa; 16:35 Ipuin kontalarixa (Ameli eta xirrikietuen jostunek); 18:30 Garagardo dastaketa; 18:35 Txorimaluak; 19:00 Kontzertua (Azkaiter Pelox eta Deiedra)

LIBURUTEGIA



Hileko gomendioa

Plastikoaren historia eta neurrigabeko kontsumoak ingurugiroan suposatu duen arriskuaz hitz egingen da. Egileek euren esperientziatik eta umorea erabiliz, arazo hauek saihesteko modu harrigarriak azaltzen dizkizute.

Gomendio liburua



FARMAZIA

ANDUAGA

San Lorentzo 3 ☎ 943 78 21 16

Irailak 3, 5, 9, 11, 13, 14, 15, 17, 25 eta 26. Urriak 4.

IGARTUA

Kale Zaharra 1 ☎ 943 78 01 22

Irailak 18, 19, 27 eta 28. Urriak 5, 7 eta 8.

GARATE

Kale Barria 42 ☎ 943 78 05 58

Irailak 20, 21, 22, 29 eta 30. Urriak 1, 9 eta 10.

ULDAIN

Kale Barria 6 ☎ 943 78 11 28

Irailak 4, 6, 7, 8, 10, 12, 16, 23 eta 24. Urriak 2 eta 3.

ZINEA



Irailak 13 - 16

NAGUSIAK:

Erase una vez en Hollywood

ZINE KLUBA:

Ez dago emanaldirik

GAZTETXOAK:

Ez dago emanaldirik



Irailak 20 - 23

NAGUSIAK:

Oxigenoa euskarari 6.000 metroan ere

Irailaren 20ko emanaldia 19:00etan hasiko da eta ondoren solasaldia egongo da. Gainerako emanaldiak ohiko zine ordutegian izango dira. Dohainik.



MERKATU TXIKIA

ADINEKO EMAKUMEA ZAINTEKO

pertsona bat behar dugu. Interesatuak deitu: 677425822 edo 695787204.

LOKALAK EDO GELAK ALOKAGAI

Klaseak emateko edo bulego gisa erabiltzeko lokalak edo gelak alokatzen dira. Kale Zaharrean. 652 756 052.

IRAKASLEA BEHAR DA

Irakaslea behar da DBH eta BATXILERGOKO ikasleei klaseak emateko, eta 15-18 urte bittarteko ikasleei klase partikularrak emateko. Interesatuak idatzi: akademiaonati@gmail.com.

ODOL ATERALDIA

IRAILAK 20 / 17:00-19:00

Euskaldun Berria gelan (Bidebarrieta, kalea 18), 17:00-19:00



Etxe-Aundi

Hotela - Jantokia

Tel. 943 78 19 56

www.etxeaundi.com





(*) Itten: arrastua, pistia

>> Jakingarria

Baserri izenak (4)

Herrixan badogu beste zenbait etxe eta baserri, euren izena sortzeko -etxa edo -etxe berbia hartu daueiñak konposiziñuan. Batzuetan aurretik agerketan da -etxe izena, eta beste batzuetan, berriz, atzetik. Lehenengo -etxe osagaixa aurretik dakoñiak aittatuko dittugu: *Etxatxo*, *Etxeandi*, *Etxebarri*, *Etxebarrialde*, *Etxenagusi*, *Etxetxikia*, *Etxezuri*... Eta segidan -etxe bigarren osagai moduan dakoñiak, esaterako: dolare + etxe= **Dolaetxe**; goiko + etxe= **Goikoetxe** / goien + etxe= **Goixenetxe**; barren + etxe= **Barrenetxe**; gipuz + etxe= **Kipuetxe**; eskola+ etxe= **Eskolaetxe**; pater+ etxe= **Pater-etxe** / **Farretxe**; harri + etxe = **Arretxe**; bake+ etxe= **Baketxe**...



Dolaetxe (Garibai)



Goixenetxe (Lezesarri)



Barrenetxe (Urrusula)



Kipuetxe (Berezao)



Eskolaetxe (Olabarrieta)



Farretxe (Zubillaga)

>> Euskeraz egogi

Oñatin oso normala da i bokalez akabotako berbiari -a mugatzaillia erantsittakuan *ixa* txistukarixa sartzea, *i+X+a>ixa*, era horretara geure berbetiaren ezaugarri nagusixena izan leikiena sortuaz, baiña Oñatiko kutsua emun guran, edo, orain arte zela ebaliz izan dan ez jakittiaren ondorioxoz, beste forma batzuk be entzuten hasi dira azkenaldi honetan, tradiziñuaren erabat kontrakuak diranak, esaterako: *gorrixian, *zurixian, *erdixian, *barrixian... *karnazerixian, *peskaderixian, *pelukerixian, *fruterixian ... urrixaren *12xian edo *22xian; *2007xian, *2008xian... *bidixuan; *neurrixian ...

Holako kasuetan nahikua da hauxe esatia:

Auto gorrixian, etxe zurixian, plaza erdixian, parke barrixian, egoera larrixian ikusi neben... Ixixaan dago.

Karnazerixian, peskaderixian, pelukerixian, fruterixian... topo egin neben berarekin.

Hillaren 12xian, 22xian; 2007xian, 2008xian, 2019xian ... pasau zan.

Bideuan agirixan geratu da.

Egin lana neurrixian, ibilli gura ezpadozue larregixan.



Hortaz, NUN kasua singularrian:

I+AN= -IxAN egingo dogu: *mendixan, zelaixan, artexian, harrixan, gerrixan, garaixan, maraixan, sapaixan...*

Baiña:

TZ+AN= -iAN egingo dogu: *auto baltzian, Aloñako haitzian, Akaizgo harkaitzian, atzeko ardatzian, gatzian probau, berakatzian pasau egin haiz...*

ANTXIÑAKO 📷 FOTOGRAFIAK



Arantzazuko argazki zahar batzuk

Badakitue hillabete honetan, agorrian, San Migelak ez ezik Arantzazuko Amaren jaixak be ospaketan ditudugula Oñatin. Aitzakixa horrekin **Arantzazun ataratako aspalditxoko fotografia batzuk** eskintten dotsuegu orainuan. Berrogeta hamar urteren tartia egon leike euren artian, XX. gizaldixaren lehenengo erdialdixan.

Zaharrenak ehun urte pasauta eukiko dittu. Mende hasierakua izango da seguruenik. Bista zabal horretan, ezkerretik eskumara, eretsitako hainbat eraikin ikusi zeikei: estalitako **pelotalekua** eta antxiñako **seminarixua**, bestiak beste; majo aldatutako **konbentua** eta **lehengo elizia** amildegi aldera; eta, barrikuntza askorakin bada be, orainddiok lanian jarraiketan dauen **hiru ostatu: Hospederixia** eta **Milikua** alkarren onduan, eta **Goiko Benta** goratxuago. Goixenian ezkerretara **Kurtzipizioko ermittia** agiri da.

Hurrengiak **lehengo plazatzua** agerketan dosku: ezkerretara **seminarixuaren aurrekaldia**; eskuman eliza zaharraren horma batzuk eta hara jaisteko eguen eskillara gaiñeko hesixa; aurrrian Hospederixia eta Milikuarena; kamiñuan, kerizpetan, **Oñatiarre-neko autobus klasikua** somaitten da. Argazkixak gerraostekua dala emuten dau, 1940ko hamarkadakua, eliza barrirako obrak hasi baiño lehentxuagokua.

Eta hirugarrena, barriz, obrairi ekin eta laister egindako argazkixa da. **F. J. Saenz de Oiza** eta **L. Laorga** arkitektuen ardura-peian, 1951tik aurrera burututako **eliza modernuaren kanpantorre luziaren lehenengo metruak** jasoten dihardue, Lasturgo harrobittik ekarritako harri zorrotzekin.

Fotografia bat, kanpantorrekua, Sigfrido Koch Bengoetxea erretratistiaarena da. Guri Goiko Bentako Maiztegi familixakuak eskuratu doskue hirurak. Milla esker.

Decoras
tu casa
y creas
un hogar



Dekora Lekun zure **etxea**
bizi leku bat bihurtzen duten
elementuak bilatzen laguntzen dizugu.